



EHUNGINTZA,  
JANTZIGINTZA ETA  
LARRUGINTZA

Oinarrizko Curriculum Diseinua

# JANTZIGINTZAKO ETA MODAKO TEKNIKARIA



koalifikazioen eta  
lanbide heziketaren  
euskal institutua

Instituto vasco de  
cualificaciones y  
formación profesional

# AURKIBIDEA

<b>1.</b>	<b>TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA</b>	<b>4. or.</b>
<b>2.</b>	<b>LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA</b>	<b>4. or.</b>
2.1	Konpetentzia orokorra	
2.2	Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3	Lanbide-ingurunea	
<b>3.</b>	<b>HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK</b>	<b>5. or.</b>
3.1	Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2	Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3.	Lanbide-moduluak	
1.	Moda eta joerak	
2.	Patroiak	
3.	Mantentze elektromekanikoaren printzipioak	
4.	Ehungintzako materialak eta larrua	
5.	Materialak ebakitzea	
6.	Neurrirako jantzigintza	
7.	Jantzigintza industrialak	
8.	Jantzigintzako akaberak	
9.	Bezeroarentzako informazioa eta arreta	
10.	Ingeles teknikoa	
11.	Laneko prestakuntza eta orientabidea	
12.	Enpresa eta ekimen sortzailea	
13.	Lantokiko prestakuntza	
<b>4.</b>	<b>GUTXIENEO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK</b>	<b>94. or.</b>
4.1	Espazioak	
4.2	Ekipamenduak	
<b>5.</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>95. or.</b>
5.1	Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
<b>6.</b>	<b>LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK</b>	<b>96. or.</b>
<b>7.</b>	<b>TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK</b>	<b>96. or.</b>
7.1	Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2	Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	



# 1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

---

Jantzigintzako eta modako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Jantzigintza eta moda
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa
- Iraupena: 2.000 ordu
- Lanbide-arloa: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Europako erreferentea: INSN-3 (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua)

## 2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

---

### 2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra honetan datza: ehunezko eta larruzko jantziak, osagarriak eta bestelako gaiak egitea, kalitateari, segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko zehaztapenak betez.

### 2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- a) TCP071\_2. Materialak ebakitzea (otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretua eta irailaren 14ko 1199/2007 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
  - UC0195\_2: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak eta produktuak ezagutzea.
  - UC0198\_2: Ehunak eta ijetzia ebakitzea.
  - UC0199\_2: Larruak ebakitzea.
- b) TCP070\_2. Materialak mihizatzea (otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretua eta irailaren 14ko 1199/2007 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
  - UC0195\_2: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak eta produktuak ezagutzea.
  - UC0196\_2: Ehunen eta ijetzien piezak mihizatzea.
  - UC0197\_2: Larruen piezak mihizatzea.
- c) TCP142\_2. Jantzigintzako akaberak (irailaren 16ko 1087/2005 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
  - UC0195\_2: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak eta produktuak ezagutzea.
  - UC0448\_2: Ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien akabera egitea.
  - UC0449\_2: Gaien eta jantzien akabera bereziak egitea.

- d) TCP391\_2. Ehunezko eta larruzko neurrirako jantziak egitea (otsailaren 29ko 329/2008 Errege Dekretua). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
- UC1225\_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.
  - UC1234\_2: Neurrirako jantzigintzan eskuz ebaki eta mihizatzea.
  - UC1235\_2: Neurrirako jantzigintzan makinaz mihizatzea.
  - UC1236\_2: Neurrirako jantzigintzan jantzien eta gaien akabera egitea.
  - UC1237\_2: Neurrirako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.

## 2.3 Lanbide-ingurunea

Lanbide-irudi honek jantzigintzako eta modako establezimenduetan eta industrietan egiten du lan; zehazki, materialak prestatu eta ebakitzen, jantziak produzitzen, eta etxerako, industria-erabileretarako eta kiroletarako ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien industria-akabera egiten dihardutenetan. Era berean, neurrirako jantziak egiten dituzten establezimenduetan lan egin dezake.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Jantzi-egilea.
- Jostuntzako eta joskintzako laguntzailea.
- Jantzigintzako espezialista.
- Jantzigintzako ofiziala.
- Ehunezko jantzien eta gaien ebakitzaila.
- Josteko eta brodatzeko industria-makinen eragilea.
- Josle mihizatzailea.
- Ehunezko eta larruzko jantzien eta gaien markatzaile ebakitzaila.
- Lisatzaile akabera-egilea.
- Akabera-makinen eragilea.

## 3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

### 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak

1. Jantzigintza-prozesuaren faseak aztertzea eta horiek azken produktuaren ezaugarriekin lotzea, gauzatu beharreko eragiketak zehazteko.
2. Jantzigintza-prozesua eta produktuaren fitxa teknikoa aztertu ondoren, tresnak, erremintak eta osagarriak hautatzea, makinak, ekipoak eta materialak prestatzeko.
3. Ehunezko materien eta larruen propietate eta ezaugarri garrantzitsuenak identifikatzea, eta haien aplikazioak eta erabilera-irizpideak deskribatzea, nahi den kalitatea lortzeko.
4. Patroiaren banaketa aztertu ondoren markaketaren errendimendua zehaztea, ehunen, larruen eta bestelako materialen ebaketa optimizatzeko.
5. Ebaketa-parametroak aztertu ondoren ebaketa-prozesua ezaugarritzea, ehunak, larruak eta bestelako materialak ebakitzeko.
6. Mihizatze-prozesuak aztertzea, eta lotzeko prozedurak eta materialak identifikatzea, ehunezko eta larruzko jantzien piezak mihizatuz.
7. Akabera-teknikak aztertzea eta horiek produktuaren ezaugarriekin lotzea, ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien akabera egiteko.
8. Modeloaren ezaugarriak aztertu ondoren, patrioiak eta prototipoak egiteko teknikak identifikatzea, jantziak eta gaiak neurrira egiteko.
9. Erreklamazioak jakinarazi eta kudeatzeko teknikak identifikatzea, eta horiek bezeroen tipologiarekin lotzea, neurrirako jantziak egiteko zerbitzuetan haiei arreta egiteko.

10. Makinen eta ekipoen mantentze-beharrak identifikatzea, eta horien garrantzia justifikatzea, funtzionalak izango direla ziurtatzeko.
11. Produkzio-prozesu batean lan-jarduerak baloratzea eta produkzio-helburuak lortzeko horiek prozesu orokorrean egiten duten ekarpena identifikatzea.
12. Kontingentziak antzeman eta baloratzea, horien sorburua zehaztea eta dagokion lanbide-jarduerari lotutako gorabeherak konpontzeko ekintza zuzentzaileak deskribatzea.
13. Haren jardueran gertatzen diren teknologiaren, antolamenduaren, ekonomiaren eta lanaren arloko aldaketak identifikatzea eta lan-esparruan duten eragina aztertzea, hainbat lanpostutara eta lan-egoera berrietara egokitzeko.
14. Ingurumena babesteko eta laneko arriskuak prebenitzeko neurriak deskribatzea, eta laneko prozeduretan aplikatzekoa den araudia identifikatzea, kalitatea, eta ingurumena babesteko neurriak eta arauak betetzen diren ziurtatzeko.
15. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua aztertu ondoren, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.
16. Ikasteko eta enplegatzeko aukerak identifikatu eta baloratzea, eta lan-merkatuaren eskaintzak eta eskaerak aztertzea, bere lan-ibilbidea kudeatzeko.
17. Negozio-aukerak antzematea, eta merkatuko eskaerak identifikatu eta aztertzea, enpresa txiki bat sortu eta kudeatzeko.

### 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0264. Moda eta joerak	132	1.a
0265. Patroiak	105	2.a
0116. Mantentze elektromekanikoaren printzipioak	132	1.a
0275. Ehungintzako materialak eta larrua	165	1.a
0267. Materialak ebakitzea	231	1.a
0268. Neurrirako jantzigintza	168	2.a
0269. Jantzigintza industrialala	297	1.a
0270. Jantzigintzako akaberak	126	2.a
0271. Bezeroarentzako informazioa eta arreta	63	2.a
E-100. Ingeles teknikoa	33	1.a
0272. Laneko prestakuntza eta orientabidea	105	2.a
0273. Enpresa eta ekimen sortzailea	63	2.a
0274. Lantokiko prestakuntza	380	2.a
<b>Zikloa guztira</b>	<b>2000</b>	

### 3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

# 1. lanbide-modulua

## MODA ETA JOERAK

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Moda eta joerak</b>
Kodea:	0264
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	132 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Profilarri lotutako lanbide-modulua
Helburu orokorrak:	3.a / 8.a / 9.a / 13.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizonak eta emakumeak janzteko dituzten arrazoiak justifikatzen ditu, eta haien motibazioak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Janzteko motibazio gisa, "babesarekin" lotutako arrazoiak justifikatu ditu.
- Janzteko motibazio gisa, besteak beste, lotsa eta apaindura aztertu ditu.
- Janzteko motibazio gisa, gizarte-arrazoiak aztertu ditu: gizarte-maila, integrazioa eta besteengandik bereiztea, besteak beste.
- Janzteko motibazio gisa, beste arrazoi batzuk aztertu ditu.

2. Giza historian zehar janzkerak izan dituen ezaugarriak identifikatzen ditu, eta horiek bilakaera teknologikoarekin, janzteko estiloekin eta unean uneko joerekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Janzkeraren historia gizateriarekin lotu du.
- Egungo moda-diseinatzaile batzuen jantziak irizpide estilistikoaren arabera sailkatu ditu.
- Zenbait egileren lanean izandako joera antzeman du.
- Emakumeak industria- eta gizarte-egituretan duen egitekoa, eta janzteko modan duen eragina aztertu ditu.
- Goi-mailako jostuntzako diseinuaren eta "prêt-à-pórtér" diseinuaren oinarriko ezaugarriak deskribatu ditu.
- Goi-mailako jostuntzako diseinuen eta "prêt-à-pórtér" diseinuen abantailak eta eragozpenak balioetsi ditu.

3. Janzkeraren bilakaeran eragina duten faktoreak identifikatzen ditu, eta horiek aurrerapen teknologikoekin eta modak historian zehar izan duen kontzeptuarekin lotzen ditu.



Ebaluazio-irizpideak:

- Gertakari industrialak prozesu industrialen antolamenduekin eta teknologia berriak agertzearekin lotu ditu.
- Josteko makinaren agerpena, eta horrek jantzien transformazioan eta jantzigintza-prozesuan izan duen eragina aztertu ditu.
- Aurrerapen teknologikoa janzkeraren urteko sasoiak, "moda", agertzearekin lotu du.
- Gertaera teknologikoak, eta jantzeko erak eta estiloak identifikatu ditu.
- Moda-diseinatzailearen agerpena eta haren eginkizunak arrazoitu ditu.
- Modaren egungo antolamendua, denboraldiak eta ibiltokiak deskribatu ditu.

4. Kolore eta ehundurako "paletak" lantzen ditu jantzigintzan aplikatzeko, eta horien osaera kasuak kasu bilatutako helburuekin lotuta justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Koloreak harmonia- eta kontraste-irizpideen arabera sailkatu ditu.
- Koloreak katalogatu eta identifikatzeko nazioartean aukeratutako metodoak antzeman ditu.
- Jantzi bati aplikatu dakizkiokeen eskala kromatikoak landu ditu.
- Hautatutako gai batean inspiratutako kolore-konposizioak egin ditu.
- Konposizioak zenbait material eta ehunduratan aplikatu ditu.
- Diseinuetan erabilitako ehundurak, koloreak eta motiboak antzeman ditu.
- Kolorearen tratamenduari buruzko informatika-programak aplikatu ditu.

5. Jantzien zirriborroak egiten ditu, eta hautatutako kolore sorta eta ehundura-konbinazioa justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Moda-diseinuak marrazteko beharrezkoak diren tresnak eta materialak prestatu ditu.
- Egin beharreko diseinuaren inspirazio-motiboa hautatu du.
- Geroko diseinuaren zirriborroa egin du.
- Diseinuaren motiboarekin bat datozen konbinazioak eta formak konposatu ditu.
- Testuren, koloreen eta motiboen konbinazioak aplikatu ditu.
- Unean nagusi den joerara gehien egokitzen diren testuren, koloreen eta motiboen konbinazioa aukeratu du.
- Prestaketan proportzio antropometrikoak errespetatu ditu.
- Zirriborroa zehaztasunez eta garbitasunez egin du.

6. Moda-joerak identifikatzen ditu, eta helburu duen biztanleria-sektorearekin eta kontuan hartutako denboraldiarekin lotutako informazio garrantzitsua balioesten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Joera bakoitzari lotutako materialen ezaugarriak identifikatu ditu.
- Helburu duen sektorearekin (haurrak, emakumeak, gazteak eta bestelakoak) lotu du joera.
- Nagusi den gizarte-testuinguruarekin (kirola, aisia eta etiketa, besteak beste) lotu ditu joerak.
- Hurrengo joerei buruzko informazioa lortzeko bide nagusiak identifikatu ditu.
- Informazioa hainbat iturritatik atera du (aldizkariak, albistegiak, Internet, erakusketak eta bestelakoak).
- Joeren eta kolore-konbinazioen inguruan lortutako informazioari buruzko txostena prestatu du.

## c) Edukiak

1. GIZA JANZKERAREN JUSTIFIKAZIOA ETA MOTIBAZIOA	
prozedurazkoak	- Giza janzkeraren motibazioa aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Babesa.</li> <li>- Lotsa.</li> <li>- Apaindura.</li> <li>- Desberdintzea.</li> <li>- Gizarte-maila.</li> <li>- Integrazioa.</li> <li>- Talde batekoa izatea.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekimena informazioa biltzean.</li> <li>- Jarrera kritikoa informazioa aztertzean.</li> </ul>

2. JANZKERAREN ETA BERE BILAKAERAREN EZAUGARRIAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Janzkera historian zehar identifikatzea.</li> <li>- Egungo garaiko janzkera aztertzea.</li> <li>- Goi-mailako joskintzaren diseinuak eta “prêt-à-porter” diseinuak aztertzea.</li> <li>- Diseinatzailearen irudia eta egitura industrialean emakumeak duen egitekoa identifikatzea.</li> <li>- Diseinuak egitean sortzen diren arazoak ebazteko parametroen zehazpena eta ezaugarriak.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Janzkeraren historia. Gertakari politikoak, militarrik eta kulturalak.</li> <li>- Gizateriaren historian janzkeran eragina duten faktoreak.</li> <li>- Antzinako gizakiaren eta lehen zibilizazioen janzkera.</li> <li>- Janzkera Antzinaroko inperio nagusietatik Erdi Arora arte.</li> <li>- Janzkera Erdi Arotik XIX. mendearen erdialdera arte.</li> <li>- Egungo moda-diseinuak.</li> <li>- Gizarte-aldaketak eta emakumea lan-munduan sartzea: eragina modan.</li> <li>- Goi-mailako joskintzako diseinuak. Ezaugarri funtzionalak eta teknikoak.</li> <li>- “Prêt-à-porter” diseinuak. Ezaugarri funtzionalak eta teknikoak.</li> <li>- Diseinatzailearen irudia.</li> <li>- Arazoak goi-mailako joskintzako diseinuak egitean eta horien konponbidea.</li> <li>- Arazoak “prêt-à-porter” diseinuak egitean eta horien konponbidea.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ekimena informazioa biltzean.</li> <li>- Jarrera kritikoa informazioa aztertzean.</li> <li>- Dagokion mailan, erabaki koherenteak hartzeko prestasuna, hala eskatzen duten egoeren edo arazoen aurrean.</li> </ul>

3. JANZKERAREN BILAKAERA ETA AURRERAPEN TEKNOLOGIKOAK	
prozedurazkoak	- Teknologia berriak, eta horiek industrian eta janzkeran dituzten ondorioak aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Industria-iraultza eta moda janzkeran.

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Josteko makina agertzea eta horren ondorioak.</li> <li>- Teknologia berrien aurrerapena. Urtearen zatiketa janzteko denboraldietan eta "moda" kontzeptua agertzea.</li> <li>- Teknologia berriak: janzteko modan eragina duten makinak eta tresnak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Joerak eta merkaturatzeko erak behatzeko interesa.</li> <li>- Ekimena informazioa biltzean.</li> <li>- Jarrera kritikoa informazioa aztertzean.</li> </ul>

#### 4. JANTZIGINTZARAKO KOLORE "PALETAK" LANTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolore-paletak harmonia- eta kontraste-irizpideen arabera landu eta sailkatzea.</li> <li>- Koloreak katalogatzeko nazioarteko arauak eta metodoak erabiltzea.</li> <li>- Kolorimetria-programa informatizatuak erabiltzea.</li> <li>- Objektuei eta giroei kolorea eta argiztapena, eta kolore-tenperatura aplikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolorea. Ezaugarriak. Sorta kromatikoa.</li> <li>- Kolorea eta argiztapena. Kolore-tenperatura.</li> <li>- Koloreak katalogatzeko nazioarteko arauak eta metodoak.</li> <li>- Kolorimetria-programa informatizatuak.</li> <li>- Kolore-konposizioak. Aplikazioak objektuei eta giroei.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Denboraldiaren araberako joeretan kolorea, ehundurak eta materialak behatzeko interesa.</li> <li>- Ekimena informazioa biltzean.</li> <li>- Jarrera kritikoa informazioa aztertzean.</li> <li>- Aldaketak edo hautabideak ekartzeko ekimena.</li> </ul>

#### 5. JANTZIEN ZIRRIBORROAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolore-konbinazioak aplikatzea.</li> <li>- Hainbat material eta ehunduratan motiboak aplikatzea.</li> <li>- Modako zirriborroak egitea.</li> <li>- Jantzi-marrazkiak egitean proportzioa aplikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diseinuen motiboak eta inspirazioa.</li> <li>- Modako zirriborroak. Motak. Egiteko teknikak.</li> <li>- Proportzioak jantzi-marrazkiak egitean.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diseinuak egiteko material plastikoak ezagutzeko jankin-mina.</li> <li>- Koloreak, ehundurak eta motiboak behatzeko interesa.</li> <li>- Ekimena eta jarrera kritikoa zirriborroak egiteko informazioa bildu eta aztertzean.</li> <li>- Zehaztasuna eta garbitasuna diseinuak egitean.</li> </ul>

6. JOERAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Laginak prestatzea.</li> <li>- Estilo bat identifikatzea.</li> <li>- Moda eta diseinatzaileak aztertzea. Bat-etortzeak eta joera/egilea identifikatzea.</li> <li>- Erakusketa, desfile, azoka, aldizkari tekniko eta abarren bidez joerak identifikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gertakari politiko eta artistikoen eragina janzkeran.</li> <li>- Moda eta diseinatzaileak.</li> <li>- Joera klasikoak: udaberri-uda, udazken-negua.</li> <li>- Joera eta egile bereko diseinuen arteko bat-etortzeak.</li> <li>- Erakusketa monografikoak.</li> <li>- Moda-azokak.</li> <li>- Desfileak modako ibiltokietan.</li> <li>- Aldizkari teknikoak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantzigintzaren sektore guztietan joerak eta merkaturatzeko erak behatzeko interesa.</li> <li>- Ekimena eta jarrera kritikoa informazioa bildu eta azertzean.</li> <li>- Aldaketak edo hautabideak ekartzeko ekimena.</li> </ul>

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Lehenik eta behin, pertsonak jantzeko dituen arrazoiak azaltzea izango da modulu hau sartzeko erarik egokiena.

Arrazoi horiek ikusi, aztertu eta justifikatu ondoren, bestelako egoera politikoak, ekonomikoak eta erlijiosoak dituzten herrialdeetako eta garaietako bakoitzean janzkeraren eta jantzien bilakaeraren ezaugarriak ikusteak bilakaera horretan eragina izan duten faktoreak ezagutzera, eta horiek aurrerapen teknologikoekin eta “moda” kontzeptuarekin lotzera eramango gaitu.

Gertaera historikoa eta teknologikoa ezagututa, eta modan eta horren joeretan oinarriturik, kolore- eta ehundura-paletak prestatuko ditugu jantzigintzan aplikatzeko. Nahi ditugun helburuak lortzeko, ezinbestekoa da kolorearen, harmoniaren eta kontrastearen teoria ezagutzea.

Kolore, forma eta ehunduren hainbat sortatuko jantzien eta gaien zirriborroak egitea nahitaezko baliabidea izango da objektuaren behin betiko diseinua lortzeko. Era berean, zenbait unetan giza irudia zirriboratu eta zehaztuko da, jantzia edo gaia bere testuinguruan kokatzeko.

Prozesuan ez dugu ahaztu behar eskuragarri ditugun informazio-kanal guztiez elikatu behar dugula: aldizkari teknikoak, ibiltokiak, telebista, Internet, gizarte-mugimenduak, etab.

## 2) Alderdi metodologikoak

Azalpen teoriko batek janztearen zergatira bideratuko gaitu; baina, komeni da “jantziaren bilakaerari” buruzko idatzizko lan bat egitea, historian zehar modak izan dituen aldaketak ikertu eta ezagutzeko ekimena bultzatzearen. Lan horrek tresna gisa balioko digu lehen hiru multzoak emateko eta, gainera, oso erabilgarria izango da hurrengo multzoak ulertzeko.

Modulu honetan zehar egiten ari garen ibilbidearekin jarraituz, azalpen bat emango dugu kolorearen, harmoniaren, kontrastearen eta janzteko estetikarekin lotutako gainerako osagaien teoriari buruz; eta modeloak eta ehunak, horien koloreak, formak, eta hautemate fisikoa eta psikologikoa ikusiko ditugu.

Jorratutako gaiekin zerikusia duten eskuzko eta informatika bidezko trebatze-ariketak (zirriborroak) adierazi beharko dira, arlo hau ezagutzera eramango baikaituzte; eta liburuetan, aldizkarietan, iragarkietan eta inguruan dugun gainerako informazioan oinarrituko gara etengabe.

Azkenik, giza irudiaren kanonari buruzko teoria erabilia, trebatze-zirriborroak egingo ditugu (eskuz eta informatika bidez) gorputzaren osagaiekin (burua, eskuak eta oinak) eta horien mugimenduekin, eta irudiaren mugimenduak era berean tratatuko ditugu. Horrela, objektuaren diseinua ikusgarri eta ulergarri egingo dugu eta, behin hura zehaztuta, sormenezko fitxetara, fitxa teknikoetara eta katalogoetara eramango dugu.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Giza janzkeraren justifikazioa eta motibazioa:
  - Gizakiak jantziak erabiltzera ekarri duten arrazoiak aztertzea.
- ✓ Janzkeraren eta bere bilakaeraren ezaugarriak identifikatzea:
  - Janzkera historian zehar identifikatzea eta janzkeraren historia gizateriarekin lotzea.
  - Egungo garaiko janzkera aztertzea, eta egungo moda-diseinatzaile batzuen jantziak irizpide estilistikoaren arabera sailkatzea.
  - Goi-mailako jostuntzako diseinuak aztertzea. Alde onak eta txarrak.
  - “Prêt-à-porter” diseinuak aztertzea. Alde onak eta txarrak.
  - Diseinatzailearen irudia eta egitura industrialean emakumeak duen egitekoa zehaztea. Horren eragina janzteko modan.
  - “Prêt-à-porter” diseinuak egitean sortzen diren arazoak ebazteko parametroen zehazpena eta ezaugarriak.
- ✓ Janzkeraren bilakaera eta aurrerapen teknologikoak:
  - Gertakari industrialak prozesu industrialen antolamenduarekin eta teknologia berriak agertzearekin lotzea.
  - Josteko makina agertzearen ondorioak aztertzea.
  - Aurrerapen teknologikoaren eta modan urteko sasoiak agertzearen arteko lotura.
  - Teknologia berriak identifikatzea.
- ✓ Jantzigintzarako kolore “paletak” lantzea:
  - Koloreak katalogatzeko nazioarteko arauak eta metodoak ezagutu eta erabiltzea.
  - Jantzi bati aplikatu dakizkiokeen eskala kromatikoak eta ehundurak lantzea.
  - Kolorea eta argiztapena, eta kolorearen tenperatura aplikatzea.
  - Hautatutako gai batean inspiratutako kolore-konposizioak sortzea.
  - Hainbat material eta ehunduratan konposizioak aplikatzea.
  - Kolorimetria-programa informatizatuak erabiltzea.

- Diseinuetan erabilitako ehundurak, koloreak eta motiboak sortzea.
- ✓ Jantzien zirriborroak egitea:
- Moda-diseinuak marrazteko beharrezkoak diren tresnak eta materialak identifikatzea.
  - Hainbat material eta ehunduratan egin beharreko diseinuaren inspirazio-motiboa hautatzea.
  - Modako zirriborroak egitea.
  - Diseinuaren motiboarekin bat datozen konbinazioak eta formak egitea.
  - Testuren, koloreen eta motiboen konbinazioak aplikatzea.
  - Unean nagusi den joerara egokitzen diren testuren, koloreen eta motiboen konbinazioa aukeratzea.
  - Jantzi-marrazkiak egitean proportzio antropometrikoa aplikatzea.
- ✓ Joerak identifikatzea:
- Gertakari politiko eta artistikoek janzkeran duten eragina identifikatzea.
  - Estilo bat identifikatzea.
  - Moda eta diseinatzaileak aztertzea. Bat-etortzeak eta joera/egilea identifikatzea.
  - Erakusketa, desfile, azoka, aldizkari tekniko eta abarren bidez joerak identifikatzea.
  - Joera bakoitzari lotutako materialen ezaugarriak identifikatzea.
  - Helburu duen sektorearekin (haurrak, emakumeak, gazteak eta bestelakoak) joera lotzea.
  - Nagusi den gizarte-testuinguruarekin (kirola, aisia eta etiketa, besteak beste) joerak lotzea.
  - Hurrengo joerei buruzko informazioa lortzeko bide nagusiak identifikatzea.
  - Joeren eta kolore-konbinazioen inguruan lortutako informazioari buruzko txostena prestatzea.
  - Laginak prestatzea.

## 2. lanbide-modulua PATROIAK

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Patroiak</b>
Kodea:	0265
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	105 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1234_2: Neurrirako jantzigintzan eskuz ebaki eta mihizatzea. UC1235_2: Neurrirako jantzigintzan makinaz mihizatzea. UC1236_2: Neurrirako jantzigintzan jantzien eta gaien akabera egitea.
Helburu orokorrak:	4.a / 8.a / 13.a

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Modeloaren gainean neurriak hartzen ditu eta horiek tailu-sistemarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Giza gorputzaren gainean, neurriak hartzeko oinarritzko puntuak adierazi ditu.
- Dimentsio antropometrikoak neurketa-prozedurekin lotu ditu.
- Jantziaren erabilerara egokitutako tailua zehaztu du.
- Tailua nomenklatura normalizatuaz (UNE, ISO) adierazi du.
- Tailua tailu-sistema normalizatuetan egiaztatu du.
- Patroiak neurtzeko taulak egin ditu.

2. Modelo bat osatzen duten pieza edo patroiak identifikatzen ditu, eta horien formak eta dimentsioak ezagutzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Jantzi mota identifikatu eta sailkatu du.
- Jantzien bolumenak, eta patroia gauzatzean eragina duten faktoreak zehaztu ditu (funtzionaltasuna eta estetika).
- Jantziaren osagaien ezaugarriak identifikatu ditu.
- Diseinua aztertu du eta egingo den modelo pieza lautuan (patroiak) deskonposatu du.
- Erabiliko den material mota zehaztu du.
- Modeloaren piezen norabidea eta kokapena zehaztu ditu.
- Patroigintzako fitxak prestatu ditu.

3. Oinarri-patroiak egiten ditu, ezarritako patroigintzako profilak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Patroi bat egiteko beharrezko patroigintzako neurriak identifikatu ditu.
- b) Piezen kopurua eta horien formak identifikatu ditu.
- c) Patroiak egiteko erremintak eta tresnak hautatu ditu.
- d) Patroigintzako neurri-taularen arabera oinarri-patroia egin du.
- e) Ingeraden ibilbideak egiaztatu ditu.
- f) Jostura edo loturako eta kokapeneko seinaleak aplikatu ditu.
- g) Jostura-marjinak aplikatu ditu.
- h) Patroiak ezarritako profiletara egokituta ebaki ditu.

4. Oinarri-patroiak eraldatzen ditu eta horiek modeloaren ezaugarrietara egokitzen direla egiaztatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Transformazio motak identifikatu ditu.
- b) Patroiaren gainean marraztutako transformazio errazak aplikatu ditu.
- c) Patroia manipulatu du hura eskatutako formara egokituta transformatzeko.
- d) Modeloaren egokitzapen funtzionala eta estetikoa egiaztatu ditu.
- e) Litezkeen zuzenketak identifikatu ditu.
- f) Neurriak patroigintzako fitxakoekin bat datozela egiaztatu du.
- g) Ingeraden ibilbideak egiaztatu ditu.
- h) Kanpoko eta barruko markak seinalatu ditu.

### c) Edukiak

1. MODELOEN GAINEAN NEURRIAK LORTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Giza gorputzaren gainean patroigintzarako neurriak hartzea.</li> <li>- Neurrien taulak identifikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Neurriak hartzeko oinarritzko puntuak.</li> <li>- Jantzi baten tailua.</li> <li>- Neurri antropometrikoak.</li> <li>- Tailuen nomenklatura eta adierazpena.</li> <li>- Tailuen sistema normalizatuak. UNE, ISO arauak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zehaztasuna neurketetan.</li> <li>- Behatu eta aztertzekeo jarrera.</li> <li>- Arreta dokumentazio teknikoa kontserbatu eta erabiltzean.</li> </ul>

2. PIEZAK EDO PATROIAK IDENTIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantziak identifikatu eta sailkatzea.</li> <li>- Jantzien osagaiak antzematea.</li> <li>- Lerroak, ebaketak eta bolumenak identifikatzea.</li> <li>- Jantzirako material egokiak antzematea.</li> <li>- Patroigintzako fitxak interpretatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantzi baten bolumenak eta ezaugarri funtzionalak.</li> <li>- Modeloaren bolumena irudi lautan deskonposatzea.</li> <li>- Patroia gauzatzean eragina duten faktoreak (funtzionaltasuna eta estetika).</li> <li>- Jantziaren osagaien ezaugarriak.</li> </ul>



jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behatu eta aztertzekeo jarrera.</li> <li>- Kalitatearekiko konpromisoa jarduerak garatzean.</li> </ul>
--------------	---

### 3. OINARRI PATROIAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Neurrien taulak identifikatzea.</li> <li>- Materialak, tresnak eta erremintak antzeman eta maneiatzea.</li> <li>- Neurrien taulen arabera oinarri-patroiak egitea.</li> <li>- Loturako eta jostura-marjinetako seinaleak aplikatzea.</li> <li>- Patroiak baliozkotu eta ebakitzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Patroiak egiteko materialak, erremintak eta tresnak.</li> <li>- Patroiak egiteko eskuzko eta informatika bidezko teknikak.</li> <li>- Lotura eta kokapeneko seinaleak.</li> <li>- Josturen marjinak.</li> <li>- Neurrien bat-etortzea. Egiaztatzea.</li> <li>- Patroiak ebakitzeko teknikak.</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioa.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna prozedurak aplikatzean.</li> <li>- Autonomia jarduerak egitean.</li> <li>- Kalitatearekiko konpromisoa jarduerak garatzean.</li> <li>- Arreta tresneria eta erremintak kontserbatu eta erabiltzean.</li> <li>- Arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea.</li> </ul>

### 4. OINARRI PATROIAK TRANSFORMATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Patroiak manipulatzeko eta modelora egokitutako transformazio errazak egitea.</li> <li>- Patroiak egiaztatu eta zuzentzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Transformazio errazak: ebaketak, alozak, neurrirako egokitzapenak, kanezuak eta bestelakoak.</li> <li>- Patroiak manipulatzeko teknikak: bolumenak aldatzea, zimurrak eta ebaketa asimetrikoak, besteak beste.</li> <li>- Neurrien bat-etortzea.</li> <li>- Patroiak zuzentzeko teknikak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zorroztasuna prozedurak aplikatzean.</li> <li>- Autonomia jarduerak egitean.</li> <li>- Kalitatearekiko konpromisoa jarduerak garatzean.</li> <li>- Behatu eta aztertzekeo jarrera.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

Modulu honetan patroien inguruan lortzen den ezagutza oinarritzko prestakuntza da zikloko beste modulu batzuk garatzeko, eta horrek eskatzen du edukien sekuentziazioa koordinatzea.

### 1) Sekuentziazioa

Patroiak egiteko, lehenik eta behin honako alderdi hauek zehaztu behar dira:

- Neurriak, normalizatuak nahiz giza gorputza neurtzetik lortutakoak.
- Egin beharreko oinarri-patroiak zehazten duen gaia edo jantzi mota, bai eta erabiliko ditugun lasaierak eta hustuketak ere.
- Modeloa zehazten duten formak eta bolumenak, diseinuari buruzko azterketaren bidez.
- Lortu beharreko osagaiak.
- Modeloa egiteko erabiliko diren materialen hautaketa.

Alderdi horiek zehaztu ondoren, patroigintzako fitxa beteko da.

Jarraian, oinarri-patroiak trazatuko dira, erreminta eta tresna eskuzko eta informatiko egokiak eta erabiltzeko behar bezala prestatuak baliatuta (arkatz zorroztuak, software egokia...). Patroiek behar bezala identifikatuta egon behar dute eta horiei buruz informazio erabilgarria izan behar da ondoren jantzia egiteko (barruko eta kanpoko erreferentziak, eta jostura-marjinak, besteak beste). Gainera, ezinbestekoa da neurriak bat datozela egiaztatzea.

Lortutako oinarri-patroietatik abiatuta, gehien erabiltzen diren manipulazioak eta transformazioak aztertuko dira. Horri esker, diseinura eta neurrietara egokitutako patroiak lortuko dira, eta horiek identifikatu, erreferentziatu eta egiaztatu behar dira baliozkotu aurretik.

### 2) Alderdi metodologikoak

Ikaskuntza, funtsean, egiteko moduetara bideratu beharko litzateke, eta, ondorioz, hezkuntza-prozesua prozedura batzuen inguruan antolatu beharko litzateke. Prozedura horiei kontzeptuzko ezagutza eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatzen dituzte ikasleek lortu beharreko abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Unitate didaktiko bakoitzari ekitean, komeni da kasu praktiko edo egoera zehatz erraz batzuk oinarritzat hartzea eta eztabaida txiki bat pizten saiatzea. Hala, ikasleen jakinmina eta motibazioa pizteaz gain, gaiaren inguruan aurretik dituzten ezagutzak finkatu ahal izango dira, eta edukiak egokitu ahal izango dira.

Edukiak ulermen-zailtasun txikienektik handienekora antolatuta jorratuko dira; ahal den neurrian, ikasleen esku-hartzea bultzatuko duten metodoak erabilia. Horrek arrazoitze-prozesuak eta erabaki logikoak, eskuratutako ezagutzen arabera justifikatuak ekarriko ditu berekin.

Modulu hau batik bat prozedurazkoa da. Horregatik, gutxieneko trebetasun-maila bat lortzeko beharrezkoa da jarduerak hainbat jantzi eta gairekin errepikatzea, hainbat

materialekin, modeloetan eta tekniketan eboluzionatzea, eta zailtasun-maila arian-arian areagotzea.

Modulua amaitzean, lan osatuak egin daitezten sustatu behar da, produkzio-sistema simulatzeko. Horretarako, dagokion mailan, laburtzeko eta aztertzeko gaitasuna abian jartzen da, eta moduluan zehar eskuratutako ezagupenak eta trebetasunak hautatu eta aplikatzen dira. Jarduera horiei esker, lortutako datuetatik abiatuta, jarduera bakoitza praktikan egiteko garaian ikaslearen autonomia ebalua daiteke.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Modeloen gainean neurriak lortzea:
  - Neurri esanguratsuak hartzea.
  - Tailu-taulak identifikatzea.
  - Neurrien taulak identifikatzea.
- ✓ Piezak edo patroiak identifikatzea:
  - Jantziak identifikatu eta sailkatzea.
  - Jantzien osagaiak antzematea.
  - Lerroak, ebaketak eta bolumenak identifikatzea.
  - Jantzirako material egokiak antzematea.
  - Patroigintzako fitxak interpretatzea.
- ✓ Oinarri-patroiak egitea:
  - Materialak, tresnak eta erremintak antzeman eta maneiatzea.
  - Oinarri-patroiak trazatzeko teknikak antzematea.
  - Oinarri-patroiak egitea.
  - Produkzio-prozesurako beharrezko datuak eta seinaleak patroiarri gehitzea.
  - Patroiak egiaztatu eta baliozkotzea.
  - Patroiak ebakitzea.
- ✓ Oinarri-patroiak transformatzea:
  - Modeloak aztertzea, eskatutako transformazioa zehazteko asmoz.
  - Oinarri-patroi egokia hautatzea.
  - Transformazio errazak egitea.
  - Produkzio-prozesurako datuak eta seinaleak patroiarri gehitzea.
  - Patroiak egiaztatu eta baliozkotzea.
  - Patroiak ebakitzea.

### 3. lanbide-modulua

## MANTENTZE ELEKTROMEKANIKOAREN PRINTZIOAK

#### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Mantentze elektromekanikoaren printzipioak</b>
Kodea:	0116
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	132 ordu
Kurtoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Makinen mantentze-lanak eta mekanizazioa (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea. UC0449_2: Gaien eta jantzien akabera bereziak egitea. UC0448_2: Ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien akabera egitea.
Helburu orokorrak:	2.a / 10.a / 12.a / 13.a / 14.a

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekipoen, makinen eta instalazioen elementu mekanikoak identifikatzen ditu, eta betetzen duten funtzioa eta multzoan duten eragina deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ekipoen eta instalazioen multzo mekanikoak osatzen dituzten mekanismo nagusiak identifikatu ditu.
- Elementuek betetzen duten funtzioa eta horien oinarrizko ezaugarri teknikoak deskribatu ditu.
- Mugimendua transmititu eta transformatzen duten elementu mekanikoak deskribatu ditu, eta prozesu-ekipoetan duten presentzia antzeman du.
- Elementu mekanikoak sailkatu ditu egiten duten transformazioaren arabera.
- Multzoetako elementuen eta piezen lotura funtzionalak deskribatu ditu.
- Mekanismoetan erabiltzen diren materialen propietateak eta ezaugarriak identifikatu ditu.
- Higadurak ager daitezkeen elementu eta piezen zati edo puntu kritikoak identifikatu ditu, eta horien sorburuak arrazoitu ditu.
- Elementu mekanikoen funtzionamenduan kontuan hartu beharreko prebentzio- eta segurtasun-neurriak aztertu ditu.

2. Instalazio pneumatikoetan esku hartzen duten elementuak antzematen ditu, eta betetzen duten funtzioa eta instalazioaren multzoan duten eragina deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aire konprimitua aplikatzeko teknika gisa pneumatikaren erabilerak deskribatu ditu.
- b) Aire konprimituaren propietateak zehaztu ditu.
- c) Aire konprimitua sortu eta tratatzeko zirkuituak identifikatu ditu, eta horien elementu nagusien eginkizuna deskribatu du.
- d) Aire konprimitua banatzeko sareak eta horien babes-elementuak identifikatu ditu.
- e) Erregulazio eta kontroleko elementu pneumatikoak identifikatu ditu, eta horiek instalazioetan duten presentzia antzeman du.
- f) Eragintzako edo laneko elementu pneumatikoak deskribatu ditu, eta horiek prozesu-ekipoetan duten presentzia identifikatu du.
- g) Zirkuitu eskuzko, erdiautomatiko eta automatiko errazen eskemek duten funtzionamendua deskribatu du.
- h) Instalazio pneumatikoen anomaliarik ohikoenak eta horien neurri zuzentzaileak zerrendatu ditu.
- i) Sektoreko prozesuen automatizazioan aire konprimituaren baliagarritasuna balioetsi du.

**3. Instalazio hidraulikoen elementuak antzematzen ditu eta betetzen duten funtzioa deskribatu du.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Energia produzitu eta transformatzeko baliabide gisa sistema hidraulikoak deskribatu ditu.
- b) Hidraulikaren oinarriko printzipio fisikoak zerrendatu ditu.
- c) Fluido hidraulikoak eta horien propietateak zerrendatu ditu.
- d) Elementu hidraulikoak horien sinbologiarekin lotu ditu.
- e) Unitate hidraulikoa, eta horren elementu funtzionalak eta babesekoak identifikatu ditu.
- f) Laneko elementu hidraulikoak egin beharreko mantentze-lanen motarekin lotu ditu.
- g) Zirkuitu hidrauliko sinpleen eskemen funtzionamendua deskribatu du.
- h) Sektoreko prozesu-automatizazioan instalazio hidraulikoak erabiltzearen onurak eta eragozpenak balioetsi ditu.
- i) Instalazio hidraulikoen anomalia ohikoenak eta horietarako neurri zuzentzaileak aipatu ditu.

**4. Instalazio elektrikoan elementuak identifikatzen ditu, eta horiek instalazioaren multzoan betetzen duten eginkizuna deskribatzen du.**

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Barneko instalazio elektrikoaren oinarriko egitura deskribatu du.
- b) Zirkuitu elektrikoaren babes, maniobra eta konexioko elementuak antzeman ditu.
- c) Industria-ekipoen aplikatutako instalazio elektrikoaren funtzionamendua horien linea bakarrek eskemarekin lotu du.
- d) Babes- eta maniobra-elementuak sektoreko ekipoen aplikatutako instalazio elektrikoaren funtzionamendu zuzenarekin eta babesarekin lotu ditu.
- e) Sektoreari aplikatutako oinarriko instalazioetan magnitude elektrikoak kalkulatu ditu (tentsioa, intentsitatea eta tentsio-erortzea, besteak beste).
- f) Sektoreko aplikatutako instalazio elektrikoetan BTEEaren jarraibide teknikoak aplikatu direla egiaztatu du.
- g) Kontrol eta maniobrako elementu elektrikoak, eta horien funtzioa antzeman ditu.
- h) Babes-gailuen ezaugarri elektrikoak, horiek babestu behar dituzten linea eta hargailu elektrikoekin lotu ditu.
- i) Osagai elektrikoak/elektronikoak manipulatzeko aplikatu beharreko segurtasun- eta prebentzio-baldintzak deskribatu ditu.

5. Sektoreko ekipo industrialen akoplamenduan esku hartzen duten makina elektrikoak eta eraikuntza-elementuak identifikatzen ditu, eta horien funtzionamendua eta aplikazioak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Sektoreko ekipoetan eta instalazioetan erabiltzen diren makina elektrikoak identifikatu ditu.
- b) Makina elektrikoak tipologiaren eta funtzioaren arabera sailkatu ditu.
- c) Makina elektrikoaren funtzionamendua eta ezaugarriak, eta sektorean duten aplikazioa deskribatu ditu.
- d) Ezaugarrien plakako informazioa instalazioaren magnitude elektrikoekin eta mekanikoekin lotu du.
- e) Makina elektrikoaren konexio-eskema (abioa eta biraketa-alderantzikatzea) eta haien babesak sinbologiaren bidez irudikatu ditu.
- f) Makinen kontsumoa hutsean eta kargan duten funtzionamendu-erregimenarekin, eta haien babes elektrikoekin lotu du.
- g) Makina elektrikoaren elikatze-instalazioetan BTEEaren jarraibide teknikoak aplikatzen direla egiaztatu du.
- h) Sektoreko makina elektrikoaren eta industria-ekipoen arteko akoplamendu-sistemak identifikatu ditu.
- i) Makina elektrikoak ekipoari eusteko sistemak zerrendatu ditu (mugimendu mota, transmisio-potentzia, zarata eta bibrazioak, besteak beste).
- j) Funtzionamenduan dauden makina elektrikoak eta zirkuituak manipulatzeko aplikatu beharreko segurtasun- eta prebentzio-baldintzak deskribatu ditu.

6. Lehen mailako mantentze-lanak aplikatzen ditu, eta erabilitako prozedurak inplikaturik dauden ekipoekin eta instalazioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ekipoen gainean egin beharreko lehen mailako (oinarrizko) mantentze-lan bakoitzerako prozedurak deskribatu ditu.
- b) Lehen mailako mantentze-lan prebentiboak/zuzentzaileak zein elementuren gainean egin behar diren identifikatu ditu.
- c) Ekipoetan eta instalazioetan sarrien izaten diren matxurak adierazi ditu.
- d) Lehen mailako mantentze-lanak egiteko beharrezko ekipoak eta erremintak identifikatu ditu.
- e) Mantentze-lanetako esku-hartzeetarako lan-arloan beharrezkoak diren baldintzak zehaztu ditu.
- f) Motor elektrikoak abiarazi ditu edo horien biraketa-noranzkoa alderantzikatu du.
- g) Ekipoen eta instalazioen oinarrizko elementuak mantendu edo ordezkatzeko teknikak aplikatu ditu.
- h) Egindako mantentze-lanak euskarri egokian erregistratu ditu.
- i) Lehen mailako mantentze-lanetan, instalazioa eta ekipoak garbitzeko, koipeztatzeko eta horien egoera egiaztatzeko eragiketak deskribatu ditu.
- j) Ekipoen eta instalazioen mantentze-lanei dagokienez, indarrean dagoen prebentzio-eta segurtasun-araudia aztertu du.

## c) Edukiak

**1. ELEMENTU MEKANIKOAK IDENTIFIKATzea**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prozesu-ekipoetan elementu mekanikoak identifikatzea.</li> <li>- Elementu mekanikoak maneiatzean arriskuak eta prebentzio-neurriak identifikatzea.</li> <li>- Elementu mekanikoen higadura ebaluatzea: lubrifikazioa eta mantentze-lan prebentiboak.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Materialak. Ekipoen eta instalazioen material nagusien portaera eta propietateak.</li> <li>- Merkaturatzeko nomenklatura eta siglak.</li> <li>- Makinen zinematika eta dinamika.</li> <li>- Mugimendua transmititzen duten elementu mekanikoak.</li> <li>- Funtzionamendua, sinbologia eta lehen mailako mantentze-lanak.</li> <li>- Mugimendua transformatzen duten elementu mekanikoak: deskribapena, funtzionamendua eta sinbologia.</li> <li>- Lotura-elementu mekanikoak: deskribapena, funtzionamendua eta lehen mailako mantentze-lanak.</li> <li>- Lotura-elementu mekanikoak: deskribapena, funtzionamendua eta lehen mailako mantentze-lanak.</li> <li>- Prebentzio- eta segurtasun-arauak elementu mekanikoak maneiatzean.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erabilitako makineria eta erremintak kontserbatzean zorrotz jokatzeko.</li> <li>- Zehaztasuna eta autonomia jarduerak gauzatzean.</li> <li>- Arriskuen prebentzioarekiko eta segurtasun-jardunekiko konpromisoa.</li> </ul>

**2. INSTALAZIO PNEUMATIKOEN ELEMENTUAK ANTZEMATEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prozesu-ekipoetan osagai pneumatikoak identifikatzea.</li> <li>- Elementu pneumatikoak maneiatzean arriskuak eta prebentzio-neurriak identifikatzea.</li> <li>- Elementu pneumatikoen higadura eta mantentze-lan prebentiboak ebaluatzea.</li> <li>- Sektoreko prozesuetan aire konprimitua eraginkortasunez erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arriskuen prebentzioari buruzko arauak.</li> <li>- Neurrirako jantzigintzan mihiztatzeko eta akaberak egiteko makina, tresna eta ekipo osagarriak erabiltzeko segurtasun-araudia.</li> <li>- Neurrirako jantzigintzan mihiztatzeko eta akaberak egiteko makinaren segurtasun-elementu inplizituak.</li> <li>- Kanpoko segurtasun-elementuak (metalezko eskularruak, betaurrekoak).</li> <li>- Lanpostuaren segurtasun-baldintzak.</li> <li>- Ergonomia neurrirako jantzigintzan.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-ingurunea arduraz garbitu eta kontserbatzea.</li> <li>- Araudia zorrotz betetzea.</li> </ul>

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziazioa

Moduluaren edukiak neurrirako jantzigintzako prozesuak dituen faseen arabera antolatzea proposatzen da. Ondorioz, eragiketak antolatu eta sekuentziatzeko, egin beharreko lanaren berezitasuna kontuan izanda dokumentazio teknikoa interpretatzea da abiapuntua.

Lortutako emaitzen eta deskribatutako zehaztapen teknikoen arabera, beharrezko makinak, ekipoak, tresnak eta erremintak doitzen dira, eta mihiztatze-eragiketetan

erabiltzeko egokitzen dira. Era berean, mihiztatu beharreko piezak prestatu eta antolatu behar dira.

Dokumentazio teknikoa interpretatu eta lanpostuak antolatu ondoren, osagaiak mihiztatutako dira, eskuz nahiz makinaz. Horretarako, gauzatze operatiboan, ergonomiari, segurtasunari eta norberaren babesari buruzko neurriak hartuko dira, eta prozesuaren fase bakoitzean produktua lortzeko eskatutako kalitatea kontuan izango da.

Lanaren fase bakoitzean, arriskuen prebentzioari eta norberaren segurtasunari buruzko araudia betiere kontuan hartu behar da.

Azkenik, eragiketa bakoitza kontrolatzeaz gain, erdietsitako kalitatea hasiera batean ezarritakoa dela egiaztatzea behar da, lortutako produktuari buruzko balioespena egin behar da eta, beharrezkoa izanez gero, ustezko bezero baten beharrak kontuan izanda emaitza birdoitu behar da.

## 2) Alderdi metodologikoak

Ikaskuntza, funtsean, egiteko moduetara bideratzea eta, ondorioz, hezkuntzaren esparruari dagokionez prozedura batzuen inguruan antolatzea proposatzen da. Prozedura horiei kontzeptuzko eduki eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatzen dituzte lortu nahi diren abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Jarduera horiek manufakturarekin lotutako prozedurazko eduki nabarmena dute, eta bezeroen beharrei eta itxaropenei erantzutera bideratuta daude. Horregatik, gutxieneko trebetasun-maila bat lortzeko komeni da jarduerak zenbaitetan errepikatzea, horietako bakoitzean hainbat jantzi eta gaitan hainbat material erabilia; zailtasuna arian-arian areagotuta tekniketaren eboluzionatzea lortzeko.

Modulua amaitzean, eskuratutako ezagupenen eta trebetasunen benetako maila frogatu behar da, eta kasuak kasu eskatutako berezitasuna kontuan izanda eta ezarritako kalitatea lortuta lan oso bat egiteko gaitasuna lortu beharko da.

Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da aztertze eta ebazteko gaitasuna abian jartzeko gauza izatea, eta moduluan zehar eskuratutako ezagupenak eta trebetasunak hautatu eta aplikatzea.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Neurrirako jantzigintzako josteko makinak eta ekipoak prestatzea:

- Informazio teknikoa interpretatu eta aztertzea.
- Josteko makinak eta ekipoak identifikatu eta aztertzea.
- Makinak prestatu eta doitzea, eta horien lehen mailako mantentze-lanak egitea.
- Lanpostua prestatu eta antolatzea, segurtasun-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea eta ergonomia azpimarratzea.

✓ Neurrirako jantzigintzan eskuz jostea:

- Eskuz josteko tresnak eta erremintak antzematea.
- Eskuzko puntadak eta josturak antzematea.
- Eskuz josteko piezak, osagarriak eta elementuak identifikatu eta prestatzea.
- Piezak mihiztatzea.
- Josturaren kalitatea egiaztatzea.

✓ Neurrirako jantzigintzan makinaz jostea:

- Makineria eta horren funtzionamendua antzematea.
- Puntadak eta josturak antzematea.

- Josteko piezak, osagarriak eta elementuak identifikatu eta prestatzea.
  - Guata jartzea, brodatuak egitea eta bigungarria jartzea.
  - Piezak mihizatzea.
  - Konponketak aplikatzea.
  - Josteko arauak aplikatu eta egiaztatzea.
- ✓ Neurrirako jantzigintzako prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzea:
- Arriskuak ebaluatzea.
  - Arriskuen eta dagozkion prebentzio-neurrien zerrenda.
  - Ergonomiari, eta norberaren babesari eta segurtasunari buruzko arauak aplikatzea.

## 7. lanbide-modulua

### JANTZIGINTZA INDUSTRIALA

#### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Jantzigintza industrialia</b>
Kodea:	0269
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	297 ordu
Kurtoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoak)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0196_2: Ehunen eta ijetzien piezak mihizatzea. UC0197_2: Larruen piezak mihizatzea. UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 2.a / 3.a / 10.a / 11.a / 12.a / 13.a / 14.a

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Jantzigintza industrialerako informazio garrantzitsua hautatzen du, dokumentazio teknikoa interpretatu eta azken produktuaren ezaugarriekin lotu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- Fabrikazio-prozesuen diagramak egin ditu.
- Prozesu industrialetan antolamenduari, funtzionamenduari eta produkzioari dagokienez dauden antzekotasunak eta desberdintasunak ezarri ditu.
- Prozesuaren fase eta eragiketa nagusiak zehaztu ditu.
- Prozesuaren faseetan erabiliko diren makinak eta ekipoak lotu ditu.
- Jantzigintza industrialeko prozesuaren kalitate-kontrolarekin lotutako dokumentazioa interpretatu du.

2. Jantzigintza industrialeko mihizatzeoko makinak eta bestelako ekipoak prestatzen ditu, eta hautatutako aldagaiak eta horien kontsigna-balioak justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Prozesua kontrolatzeko erregulatu beharreko aldagaiak identifikatu ditu.
- Jantzigintza industrialeko mihizatze-prozesurako ekipoen eta makinaren kontsigna-balioak antzeman ditu.
- Prozedurak eta teknikak erabilia, muntatu eta desmuntatu, lubrifikatu eta garbitzeko eragiketak, eta programa erregulatu, doitu eta kargatzekoak (makina informatizatuak) egin ditu.

- d) Lisatzeko, presioa doitu eta erregulatzeko, lurrunezko, xurgatzeko, lehortzeko edo hozteko eta tenperaturako makinetan eta ekipoetan besoak eta platerak aldatu ditu, eta materialera egokitu ditu.
- e) Mihiztatzeko eta akabera egiteko makinan lehen mailako mantentze-lanak egin ditu.
- f) Josteko edo termozigilatzeo makinan pieza eta elementuen anomalia sinpleak ebatzi ditu, haien higadura edo haustura balioetsi du eta anomalien sorburuak edo faktoreak identifika tu.
- g) Osagaien prestaketa-kalitatea (itxura, formarekiko zehaztasuna, beheragune mota) eta alderdi orokorren kalitatea (patroiarekiko zehaztasuna, eta brodatuaren, apainduraren eta/edo osagarrien kokapena) egiaztatu ditu.
- h) Prestaketa eta erabilerako mantentze-lanak autonomiaz, ordenaz, metodoz eta zehaztasunez egin ditu.

3. Osagaiak eta osagarriak mihiztaten ditu, hautatutako teknikak deskribatzen ditu eta haiek azken produktuaren ezaugarriekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantzigintza industrialean mihiztatzeko makinan erabileraprozedura deskribatu du.
- b) Makineria eta osagarriak mihiztatzeprozeduraren arabera hautatu ditu.
- c) Mihiztatzeko materialak (hari motak, itsasgarriak) hautatu ditu.
- d) Informazio teknikoaren arabera mihiztatzea gauzatzeko faseak sekuentziatu eta antolatu ditu.
- e) Mihiztatzeko teknikak aplikatu ditu, hainbat lotura-teknika eta material mota erabilia.
- f) Josturen mihiztatzeko edo loturaren, eta itsastearen edo termozigilatzearen kalitatea egiaztatu du, eta antzemandako anomaliak zuzendu ditu.
- g) Mihiztatzea autonomiaz, metodoz, txukuntasunez eta irizpide estetiko z egin du.

4. Prozesuaren kalitatea kontrolatzen du eta haren etengabeko hobekuntzarekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantzi baten, eta ehunezko edo larruzko gai baten kalitatea ezartzeko kontuan hartu beharreko faktoreak deskribatu ditu.
- b) Jantzigintzako produktuen eta prozesuen arabera kalitate-estandarren motak identifika tu.
- c) Makineriaren funtzionamenduari aplikatu beharreko kalitate-kontrolak antzeman ditu.
- d) Kalitate-arauak identifika tu.
- e) Kalitatearen kudeaketa balioetsi du.
- f) Kalitatea kudeatzeko sistemaren erregistroak antzeman ditu.
- g) Etengabeko hobekuntzarako plana ezaugarritu du.
- h) Kalitatea kudeatzeko sistema berraztertzean lortutako emaitzak aztertzeo prozedura definitu du.

5. Neurrirako jantzigintzako prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenari buruzko arauak betetzen ditu, horri lotutako arriskuak eta prebentzio-neurriak identifika tu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jantzigintza industrialerako materialak, erremintak eta tresnak manipulatzeko dakarren arriskugarritasun-maila identifika tu.
- b) Jantzigintza industrialean mihiztatzeko makinan erabileran segurtasun-arauak errespetatu ditu.
- c) Jantzigintza industrialean mihiztatzeko materialak, erremintak eta makinak manipulatzeko istripuen sorburu ohikoena zein diren identifika tu.
- d) Jantzigintza industrialeko eragiketak prestatu eta egiteo hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak deskribatu ditu.

- e) Mihiztatzeko eta akaberak egiteko materialen, erreminten eta makinaren manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko neurriekin erlazionatu du.
- f) Ingurumenaren poluzio-iturriak zein izan daitezkeen identifikatu du.
- g) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna balioetsi ditu.
- h) Jantzigintza industrialeko eragiketetan teknika ergonomikoak aplikatu ditu.

### c) Edukiak

1. JANTZIGINTZA INDUSTRIALERAKO INFORMAZIO TEKNIKOAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fitxa teknikoak interpretatzea.</li> <li>- Produkzio-prozesuak aztertzea: diagramak eta faseen zerrendak. Prozesu-eragiketak.</li> <li>- Oinplanoko banaketa interpretatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantzigintza industrialeko prozesuetako eragiketak.</li> <li>- Diagramak eta faseen zerrendak.</li> <li>- Antolamendu, funtzionamendu eta produkzioko teknikak jantzigintzako prozesu industrialetan.</li> <li>- Oinplanoko banaketa-metodoak (makinaren eta ibilbide-diagramen irudikapena).</li> <li>- Fitxa teknikoak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behatu eta aztertze jarrera.</li> <li>- Zorroztasuna prozedurak aplikatzean.</li> <li>- Autonomia jarduerak egitean.</li> </ul>

2. JANTZIGINTZA INDUSTRIALEAN MIHIZTATZEKO MAKINAK ETA EKIPOAK PRESTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mihiztatzeko makinak eta ekipoen aztertzea.</li> <li>- Makinak prestatu eta doitzea, eta horien lehen mailako mantentze-lanak egitea.</li> <li>- Ehungintzako eta larrugintzako makinaren segurtasun-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.</li> <li>- Lanpostua prestatu eta antolatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mihiztatzeko makineria eta ekipoen.</li> <li>- Ziklo finkoko makinak eta ziklo aldakorrekoko makinak.</li> <li>- Jantzigintza industrialeko makina programagarriak.</li> <li>- Makina osagarriak.</li> <li>- Termozigilatze eta itsaste bidez mihiztatzeko makinak.</li> <li>- Jantzigintza industrialeko makinak doitzeko organo eragileak.</li> <li>- Berariazko segurtasun-sistemak. Funtzionamendua. Egiaztatzea.</li> <li>- Mihiztatzeko makinaren eta tresnen lehen mailako mantentze-lanak jantzigintza industrialean. Jantzigintzako makina industrialetan orratzak eta arrastatze-sistemak aldatzea. Jantzigintzako makina industrialetan elementu mugikorak galgatzea. Jantzigintza industrialeko makinaren engranajeak eta elementu eragileak lubrifikatu eta koipeztatzea.</li> <li>- Segurtasun-sistemak, makinaren mota eta funtzionaltasuna kontuan izanda. Ergonomia.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna</li> </ul>

	makinak prestatu eta mantentzean. - Ergonomiarekiko eta prebentzioarekiko konpromisoa.
--	---

### 3. OSAGAIK ETA OSAGARRIAK MIHIZTATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mihiztatze industrialeko makinak maneiatzeara.</li> <li>- Mihiztatze-prozesurako materialak identifikatu eta prestatzea.</li> <li>- Fitxa teknikoan zehaztutako puntadak eta josturak aplikatzea.</li> <li>- Larruak prestatu eta itsastea.</li> <li>- Mihiztatze-prozesuak gauzatu eta optimizatzea.</li> <li>- Osagarriak aplikatzea, jantziaren diseinuaren arabera.</li> <li>- Mihiztatze-prozesuen emaitzazko kalitatea egiaztatzea.</li> <li>- Segurtasun-arauak aplikatzea.</li> </ul>
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Joste industrialeko sistemak, mihiztatu beharreko material motaren arabera.</li> <li>- Orratz motak ehunean eta larruan landu beharreko materialaren arabera.</li> <li>- Arraste motak jantzigintza industrialeko makinetan.</li> <li>- Puntadak eta josturak ehunezko eta larruzko jantzigintza industrialean. Josturak ehunen eta larruaren mihiztatzean.</li> <li>- Osagarriak eta ezarkinak jantzigintza industrialean.</li> <li>- Ehunezko jantziak egiteko teknikak: prozesua eta gauzatzea.</li> <li>- Larruak itsastearren prestatzeko teknikak. Lanabesak.</li> <li>- Larruak itsasteko teknikak. Produktuak: itsasgarriak eta kolak.</li> <li>- Termozigilatzea.</li> <li>- Kalitate-arauak ehunezko jantzigintza industrialean.</li> </ul>
----------------	--

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna mihiztatze-prozesuan.</li> <li>- Soluzioak bilatzeko interesa.</li> <li>- Arriskuaren prebentzioarekiko eta ingurumen-babesarekiko konpromisoa.</li> </ul>
--------------	---

### 4. PROZESUETAKO KALITATE KONTROLA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalitatean esku hartzen duten faktoreak identifikatzea.</li> <li>- Kalitate-estandarrak aztertzea.</li> <li>- Kalitate-arauak identifikatzea.</li> <li>- Prozesuen emaitzazko kalitatea egiaztatzea.</li> <li>- Kalitatea kudeatzeko sistemaren erregistroak ezagutzea.</li> <li>- Erregistroak betetzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.</li> </ul>
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalitatearen kontzeptua.</li> <li>- Ehunezko eta larruzko jantzi edo gai baten kalitatean esku hartzen duten faktoreak.</li> <li>- Kalitate-estandarrak.</li> <li>- Prozesuaren kalitatea (makinak, tresnak eta erremintak).</li> <li>- Kalitatea kudeatzeko sistemaren erregistroak.</li> <li>- Etengabe hobetzeko plana.</li> <li>- Mihiztatzearekin lotutako dokumentazioa.</li> <li>- Gorabeherak erregistratzeko metodoak.</li> </ul>
----------------	---

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zehaztasuna emaitzak aztertu eta bereiztean.</li> <li>- Kalitatearen kudeaketarekiko eta hobetzeko prozesuekiko</li> </ul>
--------------	---



	konpromisoa. - Aldaketak edo hautabideak ekartzeko ekimena.
--	--

## 5. JANTZIGINTZA INDUSTRIALEKO PROZESUETAN LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOARI ETA INGURUMEN BABESARI BURUZKO ARAUAK BETETZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arriskuen prebentzioari buruzko araudia aztertzea.</li> <li>- Arriskuak ebaluatzea.</li> <li>- Arriskuen eta dagozkion prebentzio-neurrien zerrenda.</li> <li>- Ergonomiari, eta norberaren eta ingurumenaren babesari eta segurtasunari buruzko arauak aplikatzea.</li> <li>- Lanpostua garbitu eta kontserbatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arriskuen prebentzioari buruzko arauak.</li> <li>- Jantzigintza industrialean mihiztatzeko eta akaberak egiteko makina, tresna eta ekipo osagarriak erabiltzeko segurtasun-araudia.</li> <li>- Segurtasun-arauak itsasgarriekin egiten diren eragiketetan.</li> <li>- Norberaren eta ingurumenaren segurtasunari buruzko arauak akabera-tratamendu berezietan produktu kimikoak erabiltzean.</li> <li>- Ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak biltegitratzeko segurtasun-arauak.</li> <li>- Jantzigintza industrialean mihiztatzeko eta akaberak egiteko makinaren segurtasun-elementu inplizituak.</li> <li>- Kanpoko segurtasun-elementuak (metalezko eskularruak, betaurrekoak).</li> <li>- Lanpostuaren segurtasun-baldintzak.</li> <li>- Ergonomia jantzigintza industrialean.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ingurunea arduraz garbitu eta kontserbatzea.</li> <li>- Araudia zorrotz betetzea.</li> </ul>

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziak

Moduluaren edukiak jantzigintza industrialeko prozesuak dituen faseen arabera antolatzea proposatzen da. Ondorioz, lan-jarduerak antolatu eta sekuentziatzeko, fitxa teknikoak eta produkziokoak interpretatzea da abiapuntua.

Fitxa horietan deskribatutako zehaztapenen arabera, beharrezko makinak, ekipoak, tresnak eta erremintak doitzen dira, eta mihiztatze-eragiketetan erabiltzeko egokitzen dira. Era berean, mihiztatu beharreko piezak prestatu eta antolatu behar dira.

Dokumentazio teknikoa interpretatu eta lanpostuak antolatu ondoren, osagaiak mihiztatutako dira. Horretarako, gauzatze operatiboan, segurtasunari eta norberaren babesari buruzko neurriak hartuko dira, eta prozesuaren fase bakoitzean produktua lortzeko eskatutako kalitatea kontuan izango da.

Lanaren fase bakoitzean, arriskuen prebentzioari, norberaren segurtasunari eta ingurumenari buruzko araudia betiere kontuan hartu behar da.

Azkenik, eragiketa bakoitza kontrolatzeaz gain, lortutako kalitatea hasiera batean ezarritakoa dela egiaztatu behar da, lortutako produktuari buruzko balioespena egin behar da, eta akatsak eta desdoikuntzak erregistratu, eta aplikatu daitezkeen hobekuntzak aztertu behar dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Ikaskuntza, funtsean, egiteko moduetara bideratu behar da eta, ondorioz, hezkuntza-esparrua prozedura batzuen inguruan antolatu behar da. Prozedura horiei kontzeptuzko ezagutza eta jarrera batzuk lotzen zaizkie. Hain zuzen, horiek osatuko dituzte ikasleek lortu beharreko abilezia kognitiboen edota trebetasunen euskarri diren edukiak.

Jarduera horiek, manufakturarekin lotuta daudenez, prozedurazko eduki nabarmena dute. Horregatik, gutxieneko trebetasun-maila bat lortzeko komeni da jarduerak zenbaitetan errepikatzea, horietako bakoitzean hainbat jantzi eta gaitan hainbat material erabilia; zailtasuna arian-arian areagotuta tekniketara eboluzionatzea lortzeko.

Modulua amaitzean, eskuratutako ezagupenen eta trebetasunen benetako maila frogatu behar da, eta lan oso bat egiteko gaitasuna lortu behar da produkzio-prozesua simulatuta, makinak doitzeari eta hasiera batean ezarritako eskakizunen eta kalitatearen arabera produktu mihiztatua lortzeari dagokionez, eta, betiere, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatuta.

Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da aztertze eta laburtze gaitasuna abian jartzea, eta moduluan zehar eskuratutako ezagupenak eta trebetasunak hautatu eta aplikatzea.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Jantzigintza industrialerako informazio teknikoa interpretatzea:
  - Fitxa teknikoak interpretatzea.
  - Produkzio-prozesuak aztertzea: diagramak eta faseen zerrendak.
  - Oinplanoko banaketak interpretatzea.
  - Produkzio-prozesuaren eragiketak aztertzea.
- ✓ Jantzigintza industrialean mihiztatzeko makinak eta ekipoak prestatzea:
  - Mihiztatzeko makinak eta ekipoak identifikatu eta aztertzea.
  - Makinak prestatu eta doitzeari, eta horien lehen mailako mantentze-lanak egitea.
  - Ehungintzako eta larrugintzako makinaren segurtasun-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.
  - Lanpostua prestatu eta antolatzean ergonomia eta segurtasuna nabarmentzea.
- ✓ Osagaiak eta osagarriak mihiztatzea:
  - Mihiztatze industrialeko makinak, erremintak eta tresnak maneiatzea.
  - Mihiztatze-prozesurako materialak identifikatu eta prestatzea.
  - Mihiztatze-prozesuak gauzatu eta optimizatzea, lortu beharreko produktuaren dokumentazio teknikora egokituta.
  - Osagarriak aplikatzea, jantziaren diseinuaren arabera.
  - Mihiztatze-prozesuen emaitzazko kalitatea egiaztatzea.
  - Segurtasun-arauak aplikatzea.
- ✓ Prozesuetako kalitate-kontrola:
  - Kalitatean esku hartzen duten faktoreak identifikatzea.
  - Kalitate-estandarrak aztertzea.
  - Kalitate-arauak identifikatzea.

- Prozesuen emaitzazko kalitatea egiaztatzea.
  - Erregistroak betetzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- ✓ Jantzigintza industrialeko prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea:
- Arriskuak ebaluatzea.
  - Arriskuen eta dagozkion prebentzio-neurrien zerrenda.
  - Ergonomiari, eta norberaren eta ingurumenaren babesari eta segurtasunari buruzko arauak aplikatzea.

## 8. lanbide-modulua

### JANTZIGINTZAKO AKABERAK

#### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Jantzigintzako akaberek</b>
Kodea:	0270
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	126 ordu
Kurtsoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC0448_2: Ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien akabera egitea. UC0449_2: Gaien eta jantzien akabera bereziak egitea. UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.
Helburu orokorrak:	1.a / 3.a / 6.a / 7.a / 12.a / 14.a

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Jantzigintzan akaberek egiteko makinak eta bestelako ekipoak prestatzen ditu, eragiketa-sekuentzia justifikatzen du eta funtzionamendu-parametroak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Akaberek egiteko makinen eta ekipoen funtzionamenduari, erabilerari eta doikuntzari buruzko informazioa eta eskuliburuak interpretatu ditu.
- Akaberek egiteko makinen eta tresnen ezaugarriak deskribatu ditu.
- Jantzigintzan produktuen akaberek egiteko beharrezkoak diren tresnak eta materialak prestatu ditu.
- Segurtasun-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du.
- Akaberek egiteko makinen eta ekipoen lehen mailako mantentze-lanak egin ditu.
- Prestaketa eta mantentze-lanak autonomiaz, ordenaz, metodoz eta zehaztasunez egin ditu.

2. Jantzigintzako produktuaren akaberek egiten ditu, haren ezaugarriak aztertu ondoren, eta hautatutako teknika justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Termofinkatzeko prozedurak deskribatu ditu.
- Akabera-teknikak deskribatu ditu: garbitzea, lurruntzea eta lehortzea.
- Termofinkatzeko teknikak aplikatu ditu.
- Lehorreko eta hezeko akabera-teknikak aplikatu ditu.

- e) Akaberaren kalitatea egiaztatu du eta produktuak forma-aldaketarik ez duela begiratu du.
- f) Akabera-prozesuan materialek duten portaera aztertu du.

3. Ehunezko eta larruzko jantzi eta gaietarako akabera-tratamendu bereziak aplikatzen ditu, modaren joerek ezarritako alderdiak eta ezaugarriak aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Modaren joerekin edo estiloekin lotutako akabera berezien ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Akabera-prozesu berezietarako ekipoak eta makinak prestatu eta programatu ditu.
- c) Jantzien akabera-tratamendu bereziak aplikatu ditu, horiei modaren joerekin edo estiloekin lotutako ezaugarriak emateko.
- d) Akabera-tratamendu berezietan erabiltzen diren produktu kimikoak identifikatu eta prestatu ditu.
- e) Tratamendu bereziak aplikatu ditu (zahartzea, tolesak egitea eta urradura lokalak egitea, besteak beste).
- f) Aplikatutako tratamendu berezi bakoitzean, denboraren, tenperaturaren eta presioaren parametroak, eta, hala egokitu denean, produktu kimikoen edo urratzaileen gehitzea kontrolatu ditu.
- g) Tratutako gaiak edo jantziak lisatu ditu eta aurreikusitako konformazioa eman die.

4. Ehunezko jantziak edo gaiak lisatzen ditu, azken produktuaren kalitatea aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ehunezko jantziak eta gaiak lisatzeko makinak, ekipoak eta osagarriak antzeman ditu.
- b) Neurritako jantzigintzan lisatzeko makinaren erabilera dituen faseak deskribatu ditu.
- c) Zulo-brodaturako ehunekin neurritako egindako jantzien akaberak egiteko lisatze-teknikak aplikatu ditu.
- d) Puntuzko ehunekin neurritako egindako jantzien akaberak egiteko lisatze-teknikak aplikatu ditu.
- e) Neurritako egindako larruzko jantzien akaberak egiteko lisatze-teknikak aplikatu ditu.
- f) Ehunezko edo larruzko jantzien amaierako aurkezpena egin du eta ahalik eta itxura selektiboena lortzen saiatu da.

5. Akabatutako gaiak aurkezten ditu, fitxa teknikoak, etiketatzea eta indarrean dagoen araudia aztertu ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Akabatutako gaiak aurkezteko teknikak eta materialak deskribatu ditu.
- b) Akabatutako gaia aurkezteko teknikak aplikatu ditu.
- c) Kanpoko etiketatzearen ezaugarriak deskribatu ditu.
- d) Ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak etiketatu ditu.
- e) Gaien amaierako aurkezpena egin du: tolestea, esekitzea (esekigailua) eta poltsaratzea.
- f) Akabatutako jantzien eta gaien materialak eta biltegitze motak antzeman ditu.

6. Jantzigintzako produktuen akaberan laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumenari buruzko arauak betetzen ditu, horri lotutako arriskuak eta babes-neurriak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Neurrirako jantzigintzarako materialak, erremintak eta tresnak manipulatzeko dakarren arriskugarritasun-maila identifikatu du.
- b) Neurrirako jantzigintzan josteko eta akaberak egiteko makinak erabiltzean segurtasun-arauak errespetatu ditu.
- c) Neurrirako jantzigintzan josteko eta akaberak egiteko materialak, erremintak eta makinak manipulatzeko istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.
- d) Neurrirako jantzigintzako eragiketak prestatu eta egiteko hartu behar diren segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak deskribatu ditu.
- e) Josteko eta lisatzeko materialen, erreminten eta makinen manipulazioa segurtasuneko eta norbera babesteko eskatutako neurriekin lotu du.
- f) Ingurumenaren poluzio-iturriak zein izan daitezkeen identifikatu du.
- g) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna balioetsi ditu.
- h) Neurrirako jantzigintzako eragiketetan teknika ergonomikoak aplikatu ditu.

### c) Edukiak

1. NEURRIRAKO JANTZIGINTZAKO JOSTEKO ETA AKABERAK EGITEKO MAKINAK ETA EKIPOAK PRESTATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio teknikoa interpretatzea.</li> <li>- Josteko, akaberak egiteko eta lisatzeko makinak eta ekipok aztertzea.</li> <li>- Akaberak egiteko makinak eta tresnak doitu, garbitu eta lehen mailako mantentze-lanak egitea: makinak lubrifikatu, koipeztatu eta garbitzea.</li> <li>- Akabera-ekipamenduan segurtasun-sistemak egiaztatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Akabera-prozesurako informazio teknikoa.</li> <li>- Lehen mailako mantentze-lanak.</li> <li>- Ehunezko jantziak eta gaiak lehorrean eta hezean akabatzeko eta termofinkatzeko makineria.</li> <li>- Ehunezko jantziak eta gaiak lisatzeko ekipok.</li> <li>- Lisaburdinen ur- eta lurrin-iragazkiak. Lurrin-galdarak.</li> <li>- Berariazko segurtasun-sistemak. Funtzionamendua. Mantentze-lanak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio teknikoa zehaztasunez erabiltzea.</li> <li>- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna prestaketan eta lehen mailako mantentze-lanetan.</li> <li>- Ergonomiarekiko eta prebentzioarekiko konpromisoa.</li> </ul>

2. JANTZIGINTZAKO PRODUKTUEN AKABERA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Akaberak antzematea.</li> <li>- Hainbat materialetan termofinkatu, garbitu, lurrundu eta lehortzeko teknikak aplikatzea, eta horien portaera egiaztatzea.</li> <li>- Akaberari buruzko fitxak egin eta erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lortu beharreko ezaugarriak: itxura, ukia eta propietate fisikoak.</li> <li>- Termofinkatze-prozesua. Prozedurak eta materialak.</li> <li>- Garbiketa-prozesua. Programak, parametroak eta prozedurak.</li> <li>- Lurruntze-prozesua. Materialen portaera.</li> <li>- Lehortze-prozesua. Ezaugarriak eta parametroak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna.</li> <li>- Zehaztasuna emaitzak aztertu eta bereiztean.</li> </ul>

	- Arriskuen prebentzioarekiko konpromisoa.
--	--

### 3. EHUNEZKO ETA LARRUZKO JANTZI ETA GAIETARAKO AKABERA TRATAMENDU BEREZIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Akabera-tratamendu bereziak antzematea. - Akabera-tratamendu bereziak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Akabera-prozesu bereziak. - Produktu kimikoak. Motak. Erabilerak. - Tratamendu bereziak. Zahartzea. Tolesak egitea. Koloregabetzea. Erabateko urradura. «Stone wash». «Laser marking». «Tie dye». «Scrunch».
jarrerazkoak	- Zehaztasuna emaitzak aztertu eta bereiztean. - Informazioa eta soluzioak bilatzeko interesa. - Aldaketak edo hautabideak ekartzeko ekimena. - Arriskuen prebentzioarekiko eta ingurumen-babesarekiko konpromisoa.

### 4. JANTZIAK EDO GAIK LISATZEA

prozedurazkoak	- Lisatzeko ekipoak antzematea. - Hainbat jantzi eta gaitan lisatze-teknikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Ehunezko jantziak edo gaiak lisatzeko makineria. - Teknikak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zulo-brodaturako ehunezko jantziak lisatzea.</li> <li>• Puntuzko jantziak lisatzea.</li> <li>• Larruzko jantziak lisatzea.</li> <li>• Akabera-tratamendu bereziak dituzten ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak lisatzea.</li> </ul>
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia, txukuntasuna eta erantzukizuna prozesuan. - Soluzioak bilatzeko interesa. - Arriskuen prebentzioarekiko konpromisoa.

### 5. AKABATUTAKO JANTZIAK AURKEZTEA

prozedurazkoak	- Gaiak aurkeztera zuzendutako makineria eta eragiketak identifikatzea. - Etiketak aplikatzea, gaiak etiketatze araudiaren arabera. - Akabatutako gaien hainbat aurkezpen egitea. - Biltegi-irratze-fitxak prestatu eta egiaztatzea. Erabilera.
kontzeptuzkoak	- Akabatutako gaiak aurkezteko eragiketak. - Tolestu eta poltsaratzeko makineria. - Jantzigintza industrialean ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak tolesteko teknikak. - Jantzigintza industrialean ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak poltsaratzeko teknikak. - Etiketak. Kanpoko etiketatzea. Indarrean dagoen araudia. - Amaierako aurkezpena. Irizpidea teknikoak, estetikoak eta komertzialak. Produktuaren amaierako aurkezpena.

	- Biltegitratzeko irizpideak.
jarrerazkoak	- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia, txukuntasuna eta erantzukizuna prozesuan. - Informazioa eta soluzioak bilatzeko interesa. - Aldaketak edo hautabideak ekartzeko ekimena.

6. AKABERA PROZESUETAN LANeko ARRISKUEN PREBENTZIOARI ETA INGURUMEN BABESARI BURUZKO ARAUAK BETETZEA	
prozedurazkoak	- Indarrean dagoen araudia identifikatu eta aplikatzea. - Arriskuak eta dagozkion prebentzio-neurriak antzematea. - Segurtasun-elementuak antzematea. - Makinak eta lanpostua garbitu eta kontserbatzea. - Norberaren babes eta segurtasuneko elementuen ergonomiari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	- Arriskuaren prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak. - Neurrirako jantzigintzan mihiztatzeko eta akaberak egiteko makina, tresna eta ekipo osagarriak erabiltzeko segurtasun-araudia. - Neurrirako jantzigintzan mihiztatzeko eta akaberak egiteko makinaren segurtasun-elementu inplizituak. - Kanpoko segurtasun-elementuak (metalezko eskularruak, betaurrekoak). - Lanpostuaren segurtasun-baldintzak. - Ergonomia neurrirako jantzigintzan.
jarrerazkoak	- Ingurunea arduraz garbitu eta kontserbatzea. - Araudia zorrotz betetzea.

#### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

##### 1) Sekuentziak

Jarduerak antolatu eta sekuentziatzeko, fitxa teknikoak eta produkziokoak interpretatzea da abiapuntua.

Bestalde, materialek egingo zaizkien tratamenduen aurrean duten portaera aztertuko da, bai akabera-teknika konbentzionalak edo bereziak, bai lisatze-teknikak aplikatzean produktuari eskatutako itxura- eta uki-ezaugarriak eta propietate fisikoak emango dizkieten parametro egokiak zein diren jakitearren.

Hala, zehaztuen teknikoak eta aplikatu beharreko tratamenduen arabera, beharrezko makinak, ekipoak, tresnak eta erremintak hautatu, prestatu eta doituko dira, eta akabera-eragiketetan erabiltzeko egokituko dira, parametroak kontrolatuta, eta lortu nahi den produktuaren prozesua eta kalitatea kontuan izanda. Era berean, materialak prestatu eta antolatu behar dira. Beharrezko akabera aplikatuko da, kalitatezko produktua lortzeko teknika zuzen erabiltzen dela ziurtatuta.



Akabera lortu ondoren, eta irizpide berberei jarraituz, ekipamendua prestatuko da eta, beharrezkoa izanez gero, gaia lisatuko da, lortu nahi diren emaitzak ahalbidetuko dituzten prozesu eta prozedura egokien arabera.

Amaitzeko, akabatutako gaia indarrean dagoen araudiaren arabera etiketatuko da, irizpide teknikoan, estetikoan eta komertzialen arabera aurkeztuko da, eta behar bezala biltegiatuko da.

Prozesu guzti-guztiak gauzatzean, segurtasun-neurriak aplikatuko dira eta norbera babesteko beharrezko ekipamendua erabiliko da. Gainera, beharrezko kasuetan, hondakinekin, alderdi kutsatzaileekin eta horien tratamenduarekin zerikusia duen ingurumena babesteko araudia aplikatuko da. Bestalde, prozesuaren fase bakoitzean, lortutako produktua balioetsita eta egiaztatuta, akatsak eta desdoikuntzak antzemango dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Gutxieneko trebetasun-maila bat lortzeko, komeni da jarduerak zenbaitetan errepikatzea, horietako bakoitzean hainbat jantzi eta gaitan hainbat material erabilia; zailtasuna arian-arian areagotuta tekniketara eboluzionatzea lortzeko.

Modulua amaitzean, eskuratutako ezagupenen eta trebetasunen benetako maila frogatu beharko litzateke, eta lan oso bat egiteko gaitasuna lortu beharko da produkzio-prozesua simulatuta, makinak doitzeari eta hasiera batean ezarritako eskakizunen eta kalitatearen arabera produktu akabatua lortzeari dagokionez, eta, betiere, laneko arriskuen eta ingurumenekoaren prebentzioari buruz indarrean dagoen araudia aplikatuta.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Neurrirako jantzigintzako josteko eta akaberak egiteko makinak eta ekipoak prestatzea:
  - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
  - Josteko, akaberak egiteko eta lisatzeko makineria, ekipoak eta tresnak identifikatu, doitu, garbitu eta lehen mailako mantentze-lanak egitea.
  - Akabera-ekipamenduan segurtasun-sistemak egiaztatzea.
- ✓ Jantzigintzako produktuen akabera:
  - Akabera motak identifikatu eta antzematea.
  - Hainbat materialetan termofinkatu, garbitu, lurrundu eta lehortzeko teknikak aplikatzea, eta horien portaera egiaztatzea.
  - Akaberari buruzko fitxak egin eta erabiltzea.
- ✓ Ehunezko eta larruzko jantzi eta gaietarako akabera-tratamendu bereziak aplikatzea:
  - Akabera-tratamenduak bereziak antzematea.
  - Akabera-tratamendu bereziak aplikatzea.
- ✓ Jantziak edo gaiak lisatzea:
  - Lisatzeko ekipoak identifikatu eta antzematea.
  - Hainbat jantzi eta gaitan lisatze-teknikak aplikatzea.
- ✓ Akabatutako jantziak aurkeztea:
  - Gaiak aurkeztera zuzendutako makineria eta eragiketak identifikatzea.
  - Akabatutako gaiak etiketatu eta aurkeztea, indarrean dagoen araudia, eta irizpide teknikoak eta estetikoak aplikatuta.
  - Biltegiatze-fitxak prestatu, egiaztatu eta erabiltzea.

- ✓ Akabera-prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea:
- Indarrean dagoen araudia identifikatu eta aplikatzea.
  - Arriskuak eta dagozkion prebentzio-neurriak antzematea.
  - Segurtasun-elementuak antzematea.
  - Norberaren babes eta segurtasuneko elementuen ergonomiari eta erabilerari buruzko arauak aplikatzea.

## 9. lanbide-modulua

## BEZEROARENTZAKO INFORMAZIOA ETA ARRETA

## a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Bezerearentzako informazioa eta arreta</b>
Kodea:	0271
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	63 ordu
Kurtsua:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1237_2: Neurrirako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.
Helburu orokorrak:	9.a / 12.a / 13.a / 15.a / 16.a / 17.a

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Bezeroei arreta egiten die zenbait komunikazio-teknika aplikatuta, eta horiek justifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Bezeroei arreta egitean esku hartzen duten komunikazioaren elementuak, oztopoak, faktore aldatzaileak eta motak identifikatu ditu.
- Komunikazio egokirako hainbat hizkuntza, teknika eta estrategia mota aztertu du.
- Bezereokiko harremanetan, gizalegearen, adeitasunaren, errespetuaren, diskrezioaren, zintzotasunaren eta interesaren garrantzia balioetsi du.
- Komunikazio egokia lortzeko garatu beharreko trebetasun pertsonalak eta sozialak ezarri ditu.
- Bezeroei jantzigintzako establezimendu mota bakoitzean dauden zerbitzu-aukerak jakinarazi dizkie.
- Balizko bezeroei buruz beharrezko informazioa hainbat egoeratan lortzea simulatu du.
- Enpresaren irudia helarazteko funtsezko elementuak bereizi ditu.
- Hainbat bezero motaren portaera aztertu du.
- Informazioaren ezaugarriak zehaztu ditu (berehalakotasuna, doitasuna), baita aholkularitzaren ezaugarriak ere (argitasuna, zuzentasuna).
- Zehaztutako ekintza-planaren arabera, bezeroen arreta osatzen duten faseak deskribatu ditu.

2. Aholkularitza-jarduerak egiten ditu, eta bezeroei arreta egiteko prozesuaren faseak deskribatzen eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aholkulariak bezeroengan eta enpresarengan (barne-marketina) garatu beharreko kualitateak eta jarrerak aztertu ditu.
- b) Bezeroaren tipologia, eta erosteko dituen motibazioak eta beharrak identifikatu ditu.
- c) Aholkulariak produktuaren ezaugarriak jakitearen garrantzia deskribatu du.
- d) Aholkularitzan jarraitu beharreko jardunbideak zehaztu ditu, enpresak finkatutako ekintza-planaren arabera.
- e) Aholkularitza-prozesuaren faseak garatu ditu (arreta bereganatzea, interesa erakartzea, nahia piztea, bezeroak mugiaraztea).
- f) Marketinaren kontzeptua eta kontsumitzailearen nahiak gogobetetzea lotu ditu.
- g) Erosteko prozesua errazten duten elementu gisa balioetsi ditu informazioa, aholkularitza, giro abegitsua, gizalegea, komunikazioa eta saltzaile aholkulariaren gizarte-trebetasunak.
- h) Leialtze-plana aplikatzeko bezeroen fitxategia eguneratuta izatearen garrantzia zehaztu du.

3. Neurrirako jantziatarako proiektuen aurrekontuak egiten ditu, lotutako jarduerak eta prozesuan erabiltzen diren materialak aztertu eta balioetsi ondoren.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aurrekontua egiteko beharrezkoa den informazioa bildu eta eman du.
- b) Aurreikusitako gastuetan oinarrituta, material estandarren kostuak, aplikatu beharreko tarifen adierazitako prezioak eta beharrezkoak diren berriazko materialak balioetsi ditu.
- c) Zerbitzuaren kostua kalkulatu du, haren konplexutasunaren, eragiketa bakoitzerako aurreikusitako denboraren eta prozesu osoaren arabera, hura guztizko prezioan sartzeko.
- d) Aurrekonturako negoziazioak aplikatzeko moduak antzeman ditu.
- e) Aurrekontuak egiteko baliabideak (ohikoa, informatikoa) erabili ditu.
- f) Aurrekontuak egiteko programa ofimatikoak erabili ditu.
- g) Merkatu-azterketa egin ondoren, lortutako prezioak alderatu ditu.

4. Prestatutako produktuen eta gaien mandatuak eta entrega formalizatzen ditu, eta haiekin lotutako dokumentazioa deskribatu eta aplikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mandatua jasotzeko jardunak identifikatu ditu, egin beharreko jantzi edo gai motaren arabera.
- b) Materialak kontrolatzeko moduak azaldu ditu.
- c) Jantziak eta gaiak bezeroei entregatzeko eta erakusteko moduak deskribatu ditu.
- d) Bezeroei buruzko fitxategia eguneratu eta antolatu du.
- e) Prestatutako produktuak eta gaiak formalizatu eta entregatzearekin lotutako dokumentazioa bete du.
- f) Informatika-programak erabili ditu.

5. Litezkeen bezeroen erreklamazio, kexa edo iradokizunei erantzuten die, jarduteko irizpideak eta prozedurak ezagutu eta aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erreklamazio eta kexen aurrean azaldu beharreko jarrera, portaera eta interesa tipifikatu ditu, eta bezeroei informazioa ematean estilo asertiboa erabili du.
- b) Gatazkak eta erreklamazioak ebazteko erabiltzen diren teknikak garatu ditu.
- c) Indarrean dagoen legeriak nabarmentzen dituzten erreklamazioen alderdiak aintzat hartu ditu.
- d) Erreklamazioak aurkezteko prozedura deskribatu du.

- e) Erraz konpon daitezkeen erreklamazioen aurrean bezeroei eskain dakizkiekeen prozedurarako hautabideak identifikatu ditu.
- f) Erreklamazioari buruzko informazioa aurrez ezarritako hierarkia-ordenaren arabera helarazi du.
- g) Informazioa antolatzen duten informazio-sistema eskuzkoek eta informatikoek zerbitzuaren kalitate-kontrolerako duten garrantzia balioetsi du.
- h) Bezeroen salmenta ondoko jarraipenaren, gertakizunen, eskaeren eta erreklamazioen inguruan erregistratu beharreko informazioa ezarri du, betiere egindako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta erabiltzaileen leialtasuna areagotzeko adierazle gisa.

### c) Edukiak

#### 1. BEZEROARENTZAKO ARRETA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazioaren elementuak identifikatzea: igorlea eta hartzailea.</li> <li>- Harreman pertsonen artekoa, masiboa eta antolamendukoa identifikatzea.</li> <li>- Komunikazioaren oztopoak eta zailtasunak antzematea: igorlearen eta hartzailearen artekoak, eta horietatik kanpokoak.</li> <li>- Abilezia pertsonalak eta gizartekoak, eta komunikazioa hobetzen duten teknikekin lotutakoak aplikatzea.</li> <li>- Faseak antzematea: harrera, komunikazioa, garapena eta agurra.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazioaren elementuak.</li> <li>- Komunikazio motak.</li> <li>- Komunikazioaren oztopoak eta zailtasunak.</li> <li>- Pertsonen arteko komunikazioa hobetzen duten abilezia pertsonalak eta gizartekoak.</li> <li>- Komunikazio-teknikak.</li> <li>- Produktuei buruzko informazioaren eta aholkularitzaren ezaugarriak.</li> <li>- Bezeroarentzako arretaren faseak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarrera atsegina eta errespetuzkoa.</li> <li>- Segurtasuna bezeroekiko portaeran.</li> <li>- Elkarrizketarako jarrera irekia hasierako planteamenduak aldatzeko.</li> </ul>

#### 2. AHOLKULARITZA JANTZIGINTZAKO JARDUERETAN

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezero mota identifikatzea.</li> <li>- Barne- eta kanpo-marketina identifikatzea.</li> <li>- Behar bat hautematea, balioa bilatzea eta erostea.</li> <li>- Enpresaren jardun-plana aplikatzea.</li> <li>- Araudia eta legeria aplikatzea.</li> <li>- Bezeroei buruzko fitxategiak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bezeroen tipologia.</li> <li>- Barne- eta kanpo-marketina.</li> <li>- Erostea erabakitzeko prozesua.</li> <li>- Enpresaren jardun-plana.</li> <li>- Araudia eta legeria.</li> <li>- Bezeroei buruzko fitxategiak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Behatu eta aztertzekeo jarrera.</li> <li>- Bezeroen egoera zehatza hautematea eta horretara egokitzea.</li> <li>- Zuhurtasuna dokumentazio teknikoak kontserbatu eta erabiltzean.</li> </ul>

3. NEURRIRAKO JANTZIETARAKO PROIEKTUEN AURREKONTUAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko informazioa prestatzea eta produktuaren bideragarritasuna aztertzea.</li> <li>- Kostuak, denborak, tarifak eta aurrekontuak prestatzea.</li> <li>- Aurrekontuak egiteko oinarrizko dokumentazioa prestatzea. Fitxak.</li> <li>- Programa informatikoak aplikatzea.</li> <li>- Materialen eta osagaien merkataritzako neurketa-unitateak egiaztatzea.</li> <li>- Jantzi bat aztertzean eta haren kostua finkatzean esku hartzen duten kontzeptuak antzematea.</li> <li>- Ehunezko jantzien eta gaien kostu-dokumentuak egitea. Produkzio-gastuak eta egitura-gastuak.</li> <li>- Jantziaren salmenta-prezioa kalkulatzeko.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren oinarrizko informazioa eta bideragarritasuna.</li> <li>- Zuzeneko eta zeharkako kostuak.</li> <li>- Eragiketa bakoitzerako eta prozesu osorako aurreikusitako denbora.</li> <li>- Prezioen tarifak.</li> <li>- Aurrekontuak.</li> <li>- Aurrekontuak egitearekin lotutako oinarrizko dokumentazioa.</li> <li>- Informatika-programak.</li> <li>- Ehunezko jantziak eta gaiak fabrikatzeko erabiltzen diren materialen eta osagaien merkataritzako neurketa-unitateak.</li> <li>- Jantzi bat aztertu eta egitean esku hartzen duten kontzeptuak: zuzeneko produkzio-gastuak eta zeharkako gastuak.</li> <li>- Ehunezko jantzien eta gaien kostu-dokumentuak. Lehengaien eta gai osagarrien kostuak, produkzio-kostuak eta egitura-kostuak.</li> <li>- Salmenta-prezioa zehazteko metodoak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zehaztasuna informazioa maneiatzean eta neurketa egitean.</li> <li>- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna informazioa prestatzean.</li> <li>- Arreta dokumentazio teknikoa kontserbatu eta erabiltzean.</li> </ul>

4. MANDATUAK FORMALIZATZEA ETA EGINDAKO PRODUKTUAK ENTREGATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enkargua formalizatzea eta aurrekontua negoziatzea.</li> <li>- Proiektuaren onarpena egiaztatzea: aurrekontua bezeroari aurkeztea. Bezeroei buruzko datuak hartzea eta proiektuaren onarpena sinatzea.</li> <li>- Enkargatutako jantzien proba-datak eta entrega-epea zehaztea.</li> <li>- Materialak identifikatu eta kontrolatzea. Hartzearen eta bezeroari entregatzearen fitxa.</li> <li>- Bezeroei buruzko fitxategi eguneratuak prestatzea.</li> <li>- Informatika-programak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enkargua formalizatzeko eta aurrekontua negoziatzeko metodoak.</li> <li>- Aplikatzeko moduak, eta enkargatutako jantzien proba-datak eta entrega-epea.</li> <li>- Bezeroei buruzko fitxategiak.</li> <li>- Informatika-programak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zehaztasuna informazioa maneiatzean.</li> <li>- Erantzukizuna bezeroekin hitzartutakoa aplikatzean.</li> <li>- Arreta dokumentazio teknikoa kontserbatu eta erabiltzean.</li> </ul>

## 5. ERREKLAMAZIOEI ERANTZUTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazkei eta erreklamazioei aurre egiteko teknikak aplikatzea.</li> <li>- Erreklamazio-prozedurak aplikatzea: erreklamazio-orriak, erakundeak, elkarteak eta legeria.</li> <li>- Erreklamazioak kudeatzea.</li> <li>- Establezimenduaren kalitate-kontrolerako adierazleak antzematea.</li> <li>- Erregistro eskuzkoak eta automatizatuak prestatzea. Fitxak.</li> <li>- Zerbitzua hobetzeko marketin-estrategiak eta -teknikak aplikatzea.</li> <li>- Erreklamazioak kudeatzeko informatika-tresnak erabiltzea.</li> <li>- Espainian eta European indarrean dagoen legeria aplikatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gatazkei eta erreklamazioei aurre egiteko teknikak.</li> <li>- Erreklamatzeko prozedurak. Legeria.</li> <li>- Erreklamazioak kudeatzeko prozedurak.</li> <li>- Establezimenduaren kalitate-kontrolerako adierazleak.</li> <li>- Informazio-sistemak. Erregistro eskuzkoa eta automatizatuak.</li> <li>- Establezimenduan erregistratzeko informazioa.</li> <li>- Egindako zerbitzua hobetzea.</li> <li>- Kudeaketako informatika-tresnak.</li> <li>- Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen babesa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Espainian. Indarrean dagoen legeria, kontsumitzaile-elkarteak, arbitraje-batzordeak eta justizia-auzitegiak.</li> <li>• Europar Batasunean. Kontsumitzaileen Zuzendaritza Nagusia. Informazio-sareak: «Red CEC» eta RAPEX Europako kontsumitzaileen guneak.</li> </ul> </li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zehaztasuna informazioa maneiatzean.</li> <li>- Ordena, metodoa, zehaztasuna, autonomia eta erantzukizuna erreklamazioak kudeatzean.</li> <li>- Soluzioak bilatzeko interesa.</li> <li>- Autonomia gauzatzean.</li> </ul>

### d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

#### 1) Sekuentziazioa

Modulu honek beharrezko informazioa biltzen du neurrirako jantziak saldu eta egiteko establezimenduetan bezeroarentzako arretarekin, informazioarekin eta aholkularitzarekin lotutako jarduerak gauzatzeko.

Hasteko, komenigarritzat jotzen da komunikazio-teknikak, hizkuntza motak, bezero motak eta salmenta-prozesuko jarrera egokiak azaltzea. Zenbait alderdi nabarmendu beharko dira, hala nola, pertsonaren araberako hizkuntza sinplea edo teknikoa hautatzea eta hitzik gabeko komunikazioa zuzen erabiltzea.

Komunikazioan esku hartzen duten oinarrizko elementuak ikasten modulari ekitea lagungarria izango da bai pertsonen arteko harremanetarako, bai gizarte-harremanetarako beharrezkoak diren abileziak eta trebetasunak eskuratzeko.

Bezeroen nahiak identifikatu eta ezagutu ondoren, behar bezala informatu eta aholkatu beharko da, pertsona, mandatu eta enpresa motaren arabera. Komeni da bezeroari eman beharreko informazioaren egiazkotasunak eta koherentziak duten garrantzia nabarmentzea, salmenta formalizatu edo ixteko helburuarekin.

Bestalde, komenigarria izango da erreklamazioei erantzuteko eduki multzoari behar duen garrantzia ematea. Izan ere, sarritan, erreklamazioei ematen zaien tratamenduaren arabera egongo da bezero kopurua mantentzea, areagotzea edo murriztea. Komunikazio-teknikak, gatazkak ebazteko teknikak eta bestelako estrategiak ondo ezagutzea oinarrizkoa izango da multzo horretan. Gainera, bezeroen jarraipenerako eta enpresaren kalitate-eskulibururako informatika-aplikazioak erabiliko dira, data, produktua, arrazoia, eragindako bezeroak, etab. jasotzeko.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulua aurkezteko garaian, bezeroen aurrean jarduteko prozesu osoan oinarritzea gomendatzen da. Prozedurak eta jarrerak izan behar ditu euskarri, eta salmenta-jarduera kalitatezkoa eta arduratsua lortzera bideratutako ildoak eman behar dira.

Batik bat kontzeptuzkoak diren edukietan, komunikazio-elementuen eta -tekniken, eta horiek aplikatzearen garrantzia nabarmendu daiteke, bezeroaren eta ingurunearen ezaugarri soziokulturalak (besteak beste) kontuan izanda; eta edukiak zailtasun txikienektik handienekora antola daitezke, ikasleen esku-hartzea bultzatuko duten metodoak erabilia, ahal den neurrian.

Batik bat prozedurazkoak eta jarrerazkoak diren edukiak jorratzean, suposizio sinpleak eta behar bezala zehaztuak planteatzea gomendatzen da. Horietan, ikasleek jarrera zuzenak eta adeitsuak izan beharko dituzte eta hitzezko adierazpen normalizatuak erabili beharko dituzte –establezimenduan bertan zein telefonoz, ohiko bezeroekin zein bezero bereziekin, etab.–. Era berean, salmenta-jardueraren simulazioak egitea iradokitzen da. Ikasleek simulazio horietan salmenta-prozesu osoa jarri beharko dute praktikan, salmentan eskatutako informazioa eta aholkularitza, eta salmenta ixtea barne. Horregatik, komenigarria izango da simulazioa egin ahal izateko espazio hornitua izatea.

Testuinguru horretan, norberaren itxura eta irudia landu beharko da, lanbidearekin lotzen den beste alderdi baten moduan, eta zein “estilo” diren egokienak argitu beharko da, establezimendu motaren arabera.

Sor daitezkeen kexei, erreklamazioei, itzultzei edo beste gertakizunei erantzuteko gaitasuna lantzeko, aldiz, komeni da jardun-protokoloak maneiatzea. Protokolo horietan, batetik, bezeroen gogobetetasuna eta, ondorioz, leialtasuna lortzeko ahalegina landuko da, eta, bestetik, enpresaren planteamendua eta indarrean dagoen legeria betetzeko ahalegina. Pertsona bakoitzak rol jakin bat bete beharko duen egoerak planteatu daitezke (adibidez, produktu akastun baten ondoriozko erreklamazio bat, edo eskaeran egindako akats baten ondoriozko erreklamazio bat), eta rol horietan hautemandako portaerak aztertu daitezke, hobekuntzak proposatzeko, teknikarik egokiena nabarmentzeko eta abar.

Azkenik, komeni da eska daitezkeen mailaren mugak argiro ezartzea, zehaztuta dauden ikaskuntzaren emaitzekin bat etor daitezzen eta finkatutako ebaluazio-irizpideak gaindi ez ditzaten.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Bezeroarentzako arreta:

- Komunikazioaren elementuak identifikatzea: igorlea eta hartzailea.



- Komunikazio motak identifikatzea: harreman pertsonen artekoa, masiboa eta antolamendukoa.
  - Komunikazioaren oztopoak eta zailtasunak antzematea: igorlearen eta hartzailearen artekoak, eta horietatik kanpokoak.
  - Abilezia pertsonalak eta gizartekoak aplikatzea:
    - Pertsonalak: enpatia, parafraseatzea, indartzeko hitzak, laburtzea.
    - Gizartekoak: abileziak taldeko komunikazioan (ahozkoa, idatzizkoa eta digitala).
  - Arretaren faseak antzematea: harrera, komunikazioa, garapena eta agurra.
- ✓ Aholkularitza jantzigintzako jardueretan:
- Bezero mota identifikatzea: ezaugarri sozioekonomikoak.
  - Barne- eta kanpo-marketina identifikatzea:
    - Produktibitatea hobetzeko barne-marketina.
    - Kanpo-marketina, saltzeko planteamendu estrategikotzat.
  - Behar bat hautematea, balioa bilatzea eta erostea.
  - Enpresaren jardun-plana aplikatzea: helburuak, jardun denboralatuak, baliabideak eta balioespena.
  - Araudia eta legeria aplikatzea: zergaren arlokoak eta gizarte- eta lan-arlokoak; odenari, higienerari eta segurtasunari buruzko barne-araudia, eta sektorearen berariazkoa.
  - Bezeroari buruzko fitxategia (bezeroaren datuen orria) prestatu eta eguneratzea.
- ✓ Neurrirako jantziarako proiektuen aurrekontua egitea:
- Oinarrizko informazioa prestatzea eta produktuaren bideragarritasuna aztertzea: zehazpena eta azterketa, oinarritzea, balioespena eta denbora.
  - Kostuak, denborak, tarifak eta aurrekontuak prestatzea: zuzeneko eta zeharkako kostuak. Eragiketa bakoitzerako eta prozesu osorako aurreikusitako denbora.
  - Aurrekontuak egiteko oinarrizko dokumentazioa prestatzea. Fitxak.
  - Informatika-programak erabiltzea.
  - Materialen eta osagaien merkataritzako neurketa-unitateak egiaztatzea (egonkortasuna, erregularitasuna eta kalitateak), eta neurrien eta tailuen azken egiaztapena egitea.
  - Ehunezko jantzien eta gaien kostu-dokumentuak egitea: lehengaien eta gai osagarrien kostuak, produkzio-kostuak eta egitura-kostuak.
  - Kostuen arabera salmenta-prezioa kalkulatzeko. Jantziaren salmenta-prezioa zehaztea.
- ✓ Mandatuak formalizatzea eta egindako produktuak entregatzea:
- Enkargua formalizatzea eta aurrekontua negoziatzea: bezeroaren azalpena, aholkularitza eta aurrekontuaren kalkulua.
  - Proiektuaren onarpena egiaztatzea: aurrekontua bezeroari aurkeztea. Bezeroei buruzko datuak hartzea eta proiektuaren onarpena sinatzea.
  - Enkargatutako jantzien proba-datak eta entrega-epea zehaztea.
  - Materialak identifikatu eta kontrolatzea. Hartzearen eta bezeroei entregatzearen fitxa.
  - Bezeroei buruzko fitxategi eguneratuak prestatzea.
  - Informatika-programak erabiltzea.
- ✓ Indarrean dagoen lege-esparrua aplikatuta erreklamazioei erantzutea:
- Gatazkei eta erreklamazioei aurre egiteko teknikak aplikatzea.
  - Erreklamazio-prozedurak aplikatzea: erreklamazio-orriak, erakundeak, elkarteak eta legeria.
  - Erreklamazioak kudeatzea: betetzea, ebaluazioa eta kontrola.
  - Establezimenduaren kalitate-kontrolerako adierazleak antzematea: kalitateen kontrola eta perdoiak. Azken adierazlea.

- Erregistro eskuzkoak eta automatizatuak prestatzea:
  - Eskuzkoa: pertsonak, datuak, jarduerak.
  - Automatizatuak: informazioa biltegiatu eta prozesatzen duten zerbitzuak.  
Fitxak: hornitzaileei, bezeroei, joerei eta makineriari buruzkoak.
- Zerbitzua hobetzeko marketin-estrategiak eta -teknikak aplikatzea: egindako zerbitzua hobetzea.
- Erreklamazioak kudeatzeko informatika-tresnak erabiltzea.

## 10

10. lanbide-modulua  
INGELES TEKNIKO

## a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Ingeles teknikoa</b>
Kodea:	E-100
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	33 ordu
Kurtsoa:	1.a
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkakoa
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko kompetentzietan lotua

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin eta eskainitako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Ahozko mezu zehatzak adierazi ditu egoera puntualak ebazteko: hitzordu bat, produktu bat igortzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/gailu baten oinarriko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilia.
- Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentuak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarriak eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo entrega-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskaintako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- d) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.
- e) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- f) Testuen deia nagusiak jaso ditu.
- g) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- h) Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak ulertu eta identifikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

### c) Edukiak

1. AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.</li> <li>- Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.</li> <li>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</li> <li>- Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.</li> <li>- Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak</li> <li>- Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.</li> <li>- Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko terminologia espezifikoak.</li> <li>- Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, boz pasiboa, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa eta bestelakoak.</li> <li>- Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.</li> <li>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>- Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.</li> <li>- Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.</li> </ul>

**2. IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulak profesionalak eta egunerokoak.</li> <li>- Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.</li> <li>- Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.</li> <li>- Sektoreko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.</li> <li>- Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko terminologia espezifikoa.</li> <li>- Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa, web-orriak.</li> <li>- Protokolo-formulak idazki profesionaletan.</li> <li>- Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura.</li> <li>- Heziketa-zikloarekin lotutako kompetentziak, lanbideak eta lanpostuak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.</li> <li>- Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.</li> <li>- Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.</li> </ul>

**3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTzea**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementu esanguratsuenak interpretatzea.</li> <li>- Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Atzerriko hizkuntza (ingeleza) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokolokoak baloratzea.</li> <li>- Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziak

Eduki-multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango dien ibilbide didaktiko bat antolatzea.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoen eta sintaktikoen ez lukete inongo zentzurik ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza—gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmina garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egoerak (aditz-denbora, hiztegia, etab.), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial edota profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irimotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneousatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Erdi-mailako zikloak diren arren, arreta berezia eskaini beharko zaio ahozko hizkuntzari, lanbide-egoerek hala eskatzen dute-eta.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu-eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jariora azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, bere burua behatzeak eta bere akatsak aztertzeak ikaskuntza bere alderdi neketsuenean hobetzen lagun diezaion ikasleari, hots, ahozko mezuak sortzen. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da-eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren audio- eta bideo-materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da: kartak, fakturak, gidak eta liburuxkak, eta web-orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitzen diren mota desberdinetako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, etab.) eskaini behar zaizkie ikasleei.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, e-posta, burofaxa, etab.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzaile eta bideratzaile gisa jardungo dute ikasgelan ahozko ingelesa erabil dadin, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen, eta ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte beren ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehentasunez, ingurune profesionalarekin lotutako materialak erabiltzea: erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak, zenbakiak, datak, orduak, eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileak.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoak eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezeroen galderak, istripu txikiak, unean uneko azalpenak.



- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburrak ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.



# 11. lanbide-modulua

## LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Laneko prestakuntza eta orientabidea</b>
Kodea:	0272
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	105 ordu
Kurtxoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.

- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarriko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio simple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarriko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.

- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-ingurunean ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikatutako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziarioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarrizko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

### c) Oinarrizko edukiak

1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.</li> <li>- Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.</li> <li>- Tituluaren lanbide-sektorea zehaztu eta aztertzea.</li> <li>- Norberaren ibilbidea planifikatzea:               <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Beharrekin eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.</li> <li>▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.</li> </ul> </li> <li>- Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerranda bat ezartzea.</li> <li>- Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.</li> <li>- Erabakiak hartzeko prozesua.</li> <li>- Sektorako enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.</li> <li>- Europar ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.</li> <li>- Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.</li> <li>- Autoenplegua lan-munduratzeko hautabidetzat baloratzea.</li> <li>- Lan-munduratzeko egokirako lan-ibilbideak baloratzea.</li> <li>- Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.</li> </ul>

2. GATAZKA ETA LAN TALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea.</li> <li>- Antolamendu-egiturak aztertzea.</li> <li>- Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.</li> <li>- Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.</li> <li>- Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuak jarrerak aztertzea.</li> <li>- Gatazkek ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.</li> <li>- Lan-taldeen sorrera aztertzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.</li> <li>- Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.</li> <li>- Lan-taldeen sorrera aztertzea.</li> <li>- Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.</li> <li>- Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.</li> <li>- Gatazka zehaztea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.</li> <li>- Gatazka ebatzi edo deuseztatzeko metodoak: bitartekotza, adiskidetzeta eta arbitrajea.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena baloratzea.</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak baloratzea.</li> <li>- Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.</li> <li>- Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.</li> <li>- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.</li> </ul>
--	--

### 3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.</li> <li>- Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.</li> <li>- Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.</li> <li>- Nomina interpretatzea.</li> <li>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren arretzarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.</li> <li>- Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.</li> <li>- Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.</li> <li>- Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).</li> <li>- Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.</li> <li>- Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZ.</li> <li>- Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.</li> <li>- Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeo eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.</li> <li>- Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.</li> <li>- Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana arautzearen beharra baloratzea.</li> <li>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa.</li> <li>- Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.</li> <li>- Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez.</li> <li>- Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta baloratzea.</li> </ul>

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.</li> <li>- Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.</li> <li>- Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.</li> <li>- Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.</li> <li>- Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.</li> <li>- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.</li> <li>- Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.</li> </ul>

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.</li> <li>- Arrisku-faktoreak aztertzea.</li> <li>- Seguratasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.</li> <li>- Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.</li> <li>- Lanbide-eginkizunaren araberrako arrisku-protokoloa ezartzea.</li> <li>- Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrisku profesionalaren kontzeptua.</li> <li>- Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.</li> <li>- Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.</li> <li>- Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.</li> <li>- Lanaren eta osasunaren arteko lotura baloratzea.</li> <li>- Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.</li> <li>- Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia baloratzea.</li> </ul>

**6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak, oinarrizko prebentzio-tresna gisa.</li> <li>- LAP Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko oinarrizko araua aztertzea.</li> <li>- LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea.</li> <li>- Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.</li> <li>- Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.</li> <li>- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.</li> <li>- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.</li> <li>- LAPean eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.</li> <li>- Prebentzioaren kudeaketa enpresan.</li> <li>- Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria).</li> <li>- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.</li> <li>- Prebentzioaren plangintza enpresan.</li> <li>- Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea.</li> <li>- LAPeko eta LO Laneko Osasuneko agente gisa duen posizioa baloratzea.</li> <li>- Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.</li> <li>- Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.</li> </ul>

**7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA**

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norbera babesteko teknikak identifikatzea.</li> <li>- Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakoak dituzten betebeharrak aztertzea.</li> <li>- Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.</li> <li>- Larrialdi-egoerak aztertzea.</li> <li>- Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.</li> <li>- Langileen osasuna zaintzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.</li> <li>- Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.</li> <li>- Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.</li> <li>- Seinale motak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Larrialdien aurreikuspena baloratzea.</li> <li>- Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.</li> <li>- Proposatutako jardueretan bete-bete parte hartzea.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

#### a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

#### b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

#### c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaitututa, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta laneko atsedena.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkartza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.



- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu: Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, banaka nahiz taldean: ikaslearen esperientzia pertsonalak azaltzea, prentsa-albisteak erabiltzea, IKTak (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabiltzea.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagun arteko gatazkak... erabil daitezke; aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzearen.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatu-etako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, etab.), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea.. Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak... Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komeni da ikasleak benetako lan bat bilatzeko kasu praktiko baten simulazioa egitea: zeregin horretarako gehien erabiltzen diren dokumentuak egitea (curriculum, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan lan-eskaintzak hautatzea.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
  - Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
  - Sektorian enplegatzeak aukerak identifikatzea.
  - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.
- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
  - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
  - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
  - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lan-taldeak, eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
  - Lan-taldeen tipologia identifikatzea.
  - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
  - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
  - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
  - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
  - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
  - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
  - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
  - Bizitza osoan ikastearen garrantzia baloratzea.

## 12. lanbide-modulua

### ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

#### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Enpresa eta ekimen sortzailea</b>
Kodea:	0273
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	63 ordu
Kurtxoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	

#### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- ETE bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile oren elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.

- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektorereko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen ETE baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektorereko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektorereko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeo oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektorereko ETE batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

## c) Oinarrizko edukiak

1. EKIMEN SORTZAILLEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).</li> <li>- Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko gaitasuna, plangintza eta prestakuntza.</li> <li>- Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.</li> <li>- Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.</li> <li>- Enpresaburuaren kontzeptua.</li> <li>- Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.</li> <li>- Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.</li> <li>- Ekintzaileen arteko lankidetzak.</li> <li>- Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.</li> <li>- Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.</li> <li>- Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.</li> <li>- Ekintzailetzaren bultzatzaile gisa, ekimena, sormena eta erantzukizuna baloratzea.</li> </ul>
2. ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.</li> <li>- Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.</li> <li>- Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.</li> <li>- Lanbide-arloko ereduzko enpresa bat aztertzea.</li> <li>- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.</li> <li>- Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.</li> <li>- Erabakitako ideia gainean berrikuntza-eraketak egitea.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).</li> <li>- Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.</li> <li>- Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.</li> <li>- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.</li> <li>- Genero-berdintasuna errespetatzea.</li> <li>- Enpresa-etika baloratzea.</li> </ul>

3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.</li> <li>- Produkzio-plana prestatzea.</li> <li>- Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.</li> <li>- Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.</li> <li>- Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.</li> <li>- Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.</li> <li>- Zerga-arloa enpresetan.</li> <li>- Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).</li> <li>- Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.</li> <li>- Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.</li> <li>- Administrazio eta legezko izapideak betetzea.</li> </ul>

4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.</li> <li>- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.</li> <li>- Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.</li> </ul>
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.</li> <li>- Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.</li> <li>- Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).</li> <li>- Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.</li> </ul>
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.</li> <li>- Administrazio eta legezko izapideak betetzea.</li> </ul>

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo da; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenetik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, etab. aztertuko dira.

Azkenik, ikasleari oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruan.

### 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzaitza-gaitasunak bereganatzearen.

Ikasleak bere proiektuan aurrera egiten duen neurrian, irakasleak beharrezkoak diren ezagupenak sartuko ditu, azalpenen bidez edota ikasgelan garatutako jardueren bidez. Ikasleari liburu edo artikulua jakin batzuk ere irakurraraziko dizkio, ondoren haien edukia kurtsoko proiektura egokitu ditzan.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta bana-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
  - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sektoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
  - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
  - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
  - Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
  - Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.

- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
  - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
  - Lan-taldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
  - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilia, etab.
  - Hautatutako negozioarako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
  - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
  - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
  
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
  - Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
  - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
  - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
  - Internet erabilia, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
  - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
  
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
  - Diruzaintzako plan bat aztertzea: emaitzen kontua eta egoera-balantzea.
  - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
  - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekueak eta letrak, besteak beste.



## 13. lanbide-modulua LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

### a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	<b>Lantokiko prestakuntza</b>
Kodea:	0274
Heziketa-zikloa:	Jantzigintza eta moda
Maila:	Erdiko maila
Lanbide-arloa:	Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
Iraupena:	380 ordu
Kurtxoa:	2.a
Irakasleen espezialitatea:	Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak (Bigarren Irakaskuntzako irakaslea) Patroigintza eta jantzigintza (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek egiten dituen produktuen produkzioarekin eta merkaturatzearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren sare logistikoa osatzen duten elementuak identifikatu ditu: hornitzaileak, bezeroak, produkzio-sistemak, biltegiatzea eta bestelakoak.
- Produkzio-prozesua garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Giza baliabideen kompetentziak produkzio-jardueraren garapenarekin erlazionatu ditu.
- Sarearen elementu bakoitzak enpresaren jarduera garatzean duen garrantzia interpretatu du.
- Merkatuaren ezaugarriak, ostalaritzako establezimendu edo negozio motak, bezero motak eta hornitzaile motak erlazionatu ditu, eta enpresaren jarduera garatzean izan dezaketen eragina aztertu du.
- Jarduera honetan ohikoenak diren establezimendu motak eta merkaturatze-bideak identifikatu ditu.
- Enpresaren egiturak beste mota bateko enpresa-erakundearen aldean dituen abantailak eta eragozpenak adierazi ditu.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta ezarritako enpresako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

- Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
  - Lanpostuak behar duen prestasun pertsonala eta denborakoa.

- o Jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, lanposturako beharrezko ordena, garbitasuna, segurtasuna eta erantzukizuna).
  - o Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean eta norbera babesteko neurrien aurrean.
  - o Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
  - o Lan-talde barruan eta enpresan ezarritako hierarkiekin harremanetan izateko jarrerak.
  - o Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
  - o Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen eta enpresaren arauen arabera erabili du norbera babesteko ekipamendua.
- d) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
- e) Lanpostua edo jarduera garatzeko eremua antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du.
- f) Jasotako argibideak interpretatu eta bete ditu, eta zuzendu zaion lanaz arduratu da.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eta harreman eraginkorra ezarri du, eta haiekin tratu erraza eta zuzena du.
- h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta edozein aldaketaren, behar garrantzitsuren edo ezustekoren berri eman du.
- i) Dagokion jardueraren garrantzia baloratu du, bai eta, eginkizun berriei erantzun ahal izateko, enpresaren produkzio-prozesuen eta zerbitzugintzako barruan zuzendutako zereginetan izandako aldaketetara egokitzearen garrantzia ere.
- j) Edozein jarduera edo zereginetan, arauak eta prozedurak arduraz aplikatzeko konpromisoa hartu du.

3. Egin behar duen jantzigintza-lanaren prozedura zehazten du, zehaztaperen teknikoak interpretatzen ditu, eta beharrezko faseak, eragiketak eta baliabideak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Dokumentazioan, prozesuaren parametroak eta zehaztaperenak interpretatu ditu.
- b) Prozesua garatzeko beharrezko ekipoak, erremintak eta baliabide osagarriak identifikatu ditu.
- c) Prozesuaren faseak definitu ditu.
- d) Material motaren, lortu nahi den kalitatearen eta eskuragarri dauden baliabideen arabera hautatu ditu erremintak eta tresnak.
- e) Lotutako kostuak zenbatetsi ditu.
- f) Arriskuen prebentzioari dagokionez, bete beharreko araudia identifikatu du.

4. Jantzigintzarako makinak, ekipoak, erremintak eta tresnak ezarrita dauden prozeduren arabera prestatzen ditu, eta laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko araudia aplikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Garatu beharreko prozesuari buruzko zehaztaperenen arabera hautatu ditu beharrezko makinak, ekipoak, erremintak eta tresnak.
- b) Prozeduran adierazitako eragiketak egiteko, erremintak eta tresnak egoera egokian daudela egiaztatu du.

- c) Erremintak eta tresnak muntatu ditu, eta beharrezko doitasunez zentratuta eta lerrokatuta daudela egiaztatu du.
- d) Jantzigintzan ebakitzeko, mihiztatzeko eta akaberak egiteko makinak eta ekipoak fitxa teknikoaren arabera prestatu ditu.
- e) Ezarritako argibideen eta prozeduren arabera egin du makinaren eta ekipoen erabiltzaile-mailako mantentzea.
- f) Prestaketa-faseak garatzean, arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren inguruan ezarritako neurriak hartu ditu.

5. Ehunezko eta larruzko materialak ebakitzen ditu, fitxa teknikoaren zehaztapenei jarraituz eta laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko araudia aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaketa-eragiketak egiteko erremintak eta tresnak erregulatu ditu.
- b) Ebakitzeko ehunak, larrua eta bestelako materialak produkzioko fitxa teknikoaren arabera prestatu ditu.
- c) Ebaketari buruzko azterlana egin du eta errendimendua kalkulatu du, enpresak ezarritako erremintak aplikatuta.
- d) Ezarritako zehaztapenen arabera egin ditu ebaketa-eragiketak, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatuta.
- e) Prozesuaren desbideratzeak antzeman eta zuzendu ditu, haren gainean jardunda, eta gorabeherak jakinarazi ditu.
- f) Ebaketa-eragiketak garatzean, arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren inguruan ezarritako neurriak hartu ditu.
- g) Makinak, erremintak, tresnak eta osagarriak garbitu eta mantentzeko eragiketak egin ditu, eta eraginkortasun-egoera egokian utzi ditu.
- h) Lanaren emaitzei, produktibitateari, kontsumoei eta gorabeherari buruzko informazio teknikoa bete du.

6. Ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak egiten ditu, ezarritako argibideak eta/edo arauak interpretatzen ditu eta horiek garatu beharrezko jardueraren berezko prozedurak eta teknikak aplikatzearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Prozesuari buruzko informazioa interpretatu du (eragiketa-prozedurak, produktuaren zehaztapenak, patroiak, kontsumoa, lanaren emaitzak, gorabeherak), enpresaren berezko baliabideak, terminologia eta sinbologia erabilia.
- b) Jantzigintza-prozesuaren fase bakoitzerako beharrezko materialak, ekipoak, makinak, erremintak eta tresnak prestatu ditu.
- c) Ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak mihiztatu eta akabatzeko eragiketa guztiak egin ditu, fitxa teknikoari jarraituz eta lantoki bakoitzaren eskakizunetara egokituta.
- d) Produkzio-emaitzak ezarritako denboran lortu ditu.
- e) Puntu kritikoak identifikatu eta prozesuaren desbideratzeak zuzendu ditu, haren gainean jardunda, eta gorabeherak jakinarazi ditu.
- f) Aribideko produktuen kalitatea eta amaierako kalitatea egiaztatu ditu, eta litezkeen anomalien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Ebaketa-eragiketak garatzean, arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren inguruan ezarritako neurriak hartu ditu.
- h) Makinak, erremintak, tresnak eta osagarriak garbitu eta mantentzeko eragiketak egin ditu, eta eraginkortasun-egoera egokian utzi ditu.
- i) Lanaren emaitzei, produktibitateari, kontsumoei eta gorabeherari buruzko informazio teknikoa bete du.

### c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait ikaskuntza-egoera adierazten dira:

- ✓ Enpresaren egitura eta antolamendua aztertzea:
  - Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea.
  - Enpresaren produkzio eta merkaturatze mota identifikatzea.
- ✓ Lan-prozedura zehaztea, eta beharrezko faseak, eragiketak eta baliabideak deskribatzea:
  - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
  - Prozesua garatzeko beharrezko makineria identifikatzea.
  - Prozesuaren faseak zehaztea.
  - Lotutako kostuak zenbatzea.
  - Aplikatu beharreko araudia identifikatzea.
- ✓ Jantzigintzarako makinak, ekipoak, erremintak eta tresnak ezarrita dauden prozeduren arabera prestatzea, eta prebentzioari buruzko araudia aplikatzea:
  - Makinak, ekipoak, erremintak eta tresnak hautatzea, eta horien egoera egiaztatzea.
  - Erremintak eta tresnak muntatu eta prestatzea, eta beharrezko doitasunez zentratuta eta lerrokatuta daudela egiaztatzea.
  - Makinen eta ekipoen erabiltzaile-mailako mantentze-lanak egitea.
  - Arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren inguruan ezarritako neurriak aplikatzea.
- ✓ Ehunezko eta larruzko materialak ebakitzea, fitxa teknikoaren zehaztapenei jarraituz eta prebentzioari buruzko indarrean dagoen araudia aplikatuta:
  - Ehunak, larrua eta bestelako materialak ebaki eta prestatzeko eragiketak egiteko erremintak eta tresnak doitzea.
  - Ebakitzeko materialak dokumentazio teknikoaren arabera prestatzea.
  - Ebaketari eta errendimenduaren kalkuluei buruzko azterlana egitea.
  - Ebaketa-eragiketak egitea, arriskuen prebentzioaren eta ingurumen-babesaren inguruan ezarritako neurriak aplikatuta.
  - Prozesuaren desbideratzeak antzeman eta zuzentzea.
  - Informazio teknikoa betetzea.
  - Makinak, erremintak, tresnak eta osagarriak garbitu eta mantentzeko eragiketak egitea.
- ✓ Ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak egitea, eskuragarri dagoen dokumentazio teknikoari jarraituz eta prebentzioari buruzko indarrean dagoen araudia aplikatuta:
  - Prozesuari buruzko informazioa interpretatzea.
  - Prozesurako materialak, ekipoak, makinak, erremintak eta tresnak prestatzea.
  - Ezarritako denboran, ehunezko eta larruzko jantziak eta gaiak mihiztatu eta akabatzeke eragiketak egitea.
  - Puntu kritikoak identifikatzea eta desbideratzeak zuzentzea.
  - Aribideko produktuen kalitatea eta amaierako kalitatea egiaztatzea, eta litezkeen anomalien sorburuak identifikatzea.
  - Arriskuei aurrea hartzeko eta ingurumena babesteko neurriak aplikatzea.
  - Makinak, erremintak, tresnak eta osagarriak garbitu eta mantentzea.
  - Informazio teknikoa betetzea.

Lanbide-modulu hau lagungarria da titulu honek berezkoak dituen ikastetxean lortutako kompetentzia eta helburu orokorrak osatzeko edota bertan lortzen zailak diren kompetentzia bereizgarriak garatzeko.

## 4. GUTXIENEO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### 4.1 Espazioak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (m <sup>2</sup> ) / 30 IKASLE	AZALERA (m <sup>2</sup> ) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Jantzigintzako lantegia	200	140
Patroigintzako gela	100	70
Materialen laborategia	60	40

### 4.2 Ekipamenduak

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikus-entzunezko ekipoak.</li> <li>- Sarean instalatutako PCak.</li> <li>- Proiekzio-kanoia.</li> <li>- Internet.</li> </ul>
Jantzigintzako lantegia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ebaketa-mahaiak.</li> <li>- Ebakitzeko makinak.</li> <li>- Ebaketarako erremintak eta tresnak.</li> <li>- Puntada zuzeneko josteko makinak.</li> <li>- Arraste bikoitz eta hirukoitzeko makinak.</li> <li>- Owerlock makinak, 3, 4 eta 5 harikoak.</li> <li>- Estaltzeko makina, 2 orratzekoa.</li> <li>- Eragiketa berezietarako makinak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Botoi-zuloak.</li> <li>- Botoiak.</li> <li>- Puntada ikusezina.</li> <li>- Brodatuak.</li> <li>- Bestelakoak.</li> </ul> </li> <li>- Aulki doigarria.</li> <li>- Jantzigintzarako erremintak eta tresnak.</li> <li>- Presiozko krisket-ekipoa.</li> <li>- Botoiak forratzeko funtzio anitzeko ekipoa.</li> <li>- Lepoak iraultzeko makina.</li> <li>- Etiketak inprimatzeko makina.</li> <li>- Termofinkatzeko makina.</li> <li>- Lisaburdina unibertsaleko mahaia eta lisaburdina.</li> <li>- Larrurako tresnak.</li> <li>- Manikiak.</li> </ul>
Patroigintzako gela	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Marrazketa-mahaia.</li> <li>- Ordenagailuak.</li> <li>- Software-programak (patroigintza).</li> <li>- Digitalizazio-mahaia.</li> <li>- Paper jarraiturako plotterra.</li> <li>- Patroietarako zulatzeko makina.</li> </ul>

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Materialen laborategia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Patroiatarako apalak edo armairuak.</li> <li>- Mikroskopiaok.</li> <li>- Doitasun-balantzak.</li> <li>- Hariak zenbakitzeko "aspe"-a.</li> <li>- Hariak zenbakitzeko "erromatarra".</li> <li>- Filokonoa.</li> <li>- Eskuzko tortsiometroa.</li> <li>- Pisurako doitasun-balantza.</li> <li>- Hari eta ehunetarako dinamometroa.</li> <li>- Materiak analizatzeko kimika-ekipamendua.</li> <li>- Ura destilatzeke ekipoa.</li> <li>- Kolore-ganbera edo UV argien ganbera.</li> <li>- Lehortzeko labea edo berogailua.</li> <li>- Laborategiko ekipamendua (mahaiak, harraska-moduluak, bitrinak, erreaktiboetarako armairuak, tabureteak).</li> </ul>

## 5. ESPEZIALITATEA

### 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena "Jantzigintza eta moda" heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0264. Moda eta joerak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea</li> </ul>
0265. Patroiak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patroigintza eta jantzigintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0116. Mantentze elektromekanikoaren printzipioak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patroigintza eta jantzigintza</li> <li>• Makinen mantentze-lanak eta mekanizazioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0275. Ehungintzako materialak eta larrua	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea</li> </ul>
0267. Materialak ebakitzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patroigintza eta jantzigintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0268. Neurrirako jantzigintza	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patroigintza eta jantzigintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0269. Jantzigintza industrialia	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patroigintza eta jantzigintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0270. Jantzigintzako akaberak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patroigintza eta jantzigintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> </ul>
0271. Bezeroarentzako informazioa eta arreta	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Irakaskuntzako irakaslea</li> </ul>
E-100. Ingeles teknikoa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingelesa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bigarren Irakaskuntzako</li> </ul>

		irakaslea
0272. Laneko prestakuntza eta orientabidea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntza eta orientabidea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntzako irakaslea</li> </ul>
0273. Enpresa eta ekimen sortzailea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko prestakuntza eta orientabidea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bigarren Irakaskuntzako irakaslea</li> </ul>
0274. Lantokiko prestakuntza	<ul style="list-style-type: none"> <li>Patroigintza eta jantzigintza</li> <li>Ehungintzako, jantzigintzako eta larrugintzako prozesuak eta produktuak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lanbide Heziketako irakasle teknikoa</li> <li>Bigarren Irakaskuntzako irakaslea</li> </ul>

## 6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

"JANTZIGINTZA ETA MODA" HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	"JANTZIGINTZA ETA MODA" HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOE, 2/2006)
Ehuna eta larrua ebakitzeko teknikak	0267. Materialak ebakitzea
Mihizadura-teknikak	0269. Jantzigintza industrialia
Ehungintza-materiak	0275. Ehungintzako materialak eta larrua
Larrua	
Jantzigintza-akaberak	0270. Jantzigintzako akaberak
Lantokiko prestakuntza	0274. Lantokiko prestakuntza

## 7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATALA	LANBIDE MODULUA
UC0195_2: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak eta produktuak ezagutzea.	0275. Ehungintzako materialak eta larrua
UC0198_2: Ehunak eta ijeltziak ebakitzea.	
UC0199_2: Larruak ebakitzea.	0267. Materialak ebakitzea
UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.	
UC0196_2: Ehunen eta ijeltzien piezak mihiztatzea.	0269. Jantzigintza industrialia
UC0197_2: Larruen piezak mihiztatzea.	
UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.	0270. Jantzigintzako akaberak
UC0448_2: Ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien akabera egitea.	
UC0449_2: Gaien eta jantzien akabera bereziak egitea.	



UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.	
UC1234_2: Neurrirako jantzigintzan eskuz ebaki eta mihizatzea.	
UC1235_2: Neurrirako jantzigintzan makinaz mihizatzea.	0265. Patroiak 0268. Neurrirako jantzigintza
UC1236_2: Neurrirako jantzigintzan jantzien eta gaien akabera egitea.	
UC1237_2: Neurrirako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.	0271. Bezeroarentzako informazioa eta arreta

## 7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULUA	KONPETENTZIA ATALA
0275. Ehungintzako materialak eta larrua	UC0195_2: Jantzigintzako, oinetakogintzako eta larrukigintzako lehengaiak eta produktuak ezagutzea.
0267. Materialak ebakitzea	UC0198_2: Ehunak eta ijeltziak ebakitzea.
	UC0199_2: Larruak ebakitzea.
	UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.
0269. Jantzigintza industrialak 0116. Mantentze elektromekanikoaren printzipioak	UC0196_2: Ehunen eta ijeltzien piezak mihizatzea.
	UC0197_2: Larruen piezak mihizatzea.
	UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.
0270. Jantzigintzako akaberak 0116. Mantentze elektromekanikoaren printzipioak	UC0448_2: Ehunezko eta larruzko jantzien eta osagarrien akabera egitea.
	UC0449_2: Gaijen eta jantzien akabera bereziak egitea.
	UC1225_1: Jantzigintzako materialak, erremintak, makinak eta ekipoak prestatzea.
0265. Patroiak 0268. Neurrirako jantzigintza	UC1234_2: Neurrirako jantzigintzan eskuz ebaki eta mihizatzea.
	UC1235_2: Neurrirako jantzigintzan makinaz mihizatzea.
	UC1236_2: Neurrirako jantzigintzan jantzien eta gaijen akabera egitea.
0271. Bezeroarentzako informazioa eta arreta	UC1237_2: Neurrirako jantzigintza-zerbitzuetan bezeroari arreta egitea.



Lehendakari Agirre, 184 • 48015 BILBAO  
Tfno.: 94 447 40 37 • Fax: 94 447 38 62  
e-mail: [kei.ivac@euskalnet.net](mailto:kei.ivac@euskalnet.net)  
[www.kei-ivac.com](http://www.kei-ivac.com)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

LANBIDE HEZIKETAKO ETA ETENGABEKO  
IKASKUNTZAKO SAILBURUORDETZA  
VICECONSEJERIA DE FORMACION  
PROFESIONAL Y APRENDIZAJE PERMANENTE